

TOKIKOM

2020ko martxoa | 201. zenbakia

# ailkor!

txorierriko aldizkaria

Miren Basaras, zientzialaria

## Koronabirusa mintzagai





## Gure hezkuntza-eskaintza

### BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredu)

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industrial
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produkzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola




POLITEKNIKA IKASTEGIA  
**TxORIERRI**  
S.COOP.

# Hartu zure etorkizunaren agintea

Kostuaren eta zerbitzuaren  
arteko erlazio egokiena

#40 urte, milaka txori



## Ate irekiak

### Zatoz ezagutzera

Derion, Bizkaiko Parke Teknologikoaren ondoan gaude. Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu.



94 403 40 60  
[www.txorierri.net](http://www.txorierri.net)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea




POLITEKNIKA IKASTEGIA  
**TxORIERRI**  
S.COOP.

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 • 48160 DERIO • Tel.: 94 403 40 60 • [www.txorierri.net](http://www.txorierri.net)



HEZKUNTZA KOOPERATIVA INTEGRALA  
Familiak, Langileak, Enpresak eta Erakundeak  
zuzenean parte hartzen dute ikastolaren  
kudeaketan.

-  **4** Eretxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Izenik gabeko heroiak
-  **12** Gurean izan da... Mitxel Lakuntza, ELA sindikatua
-  **14** Gaztea eta... Leire Barcia, atleta
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Aitatasuna lantzeko taldea
-  **20** Miren Basaras, mikrobiologian doktorea
-  **28** Mikel Uriarte Gonzalez, barista
-  **30** Garrasia Sondikako elkarte feminista
-  **32** Larrabetzuko Memoriaren Espazioa
-  **34** Teknologia... Neutroien mikroskopioa
-  **35** Aikorrizketa... Piztifaktoria
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa



12 Mitxel Lakuntza, ELAren idazkari nagusia



32 Larrabetzuko Memoriaren Espazioa



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
**Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



**Bizkaiko Foru**  
**Aldundia**  
**Diputación**  
**Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

**Kolaboratzaileak:** Ines Serrano, Azler Garcia, Xabier Diaz, Jon Goikouria Larrabeiti, Juanjo Ortiz, Idoia Andres eta Itallen bertso eskola

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



## Marko Aurelioren aholkua

**D**emagun 1000. urtean Andaluzia-ko baserritar bat lo gozoak hartu duela eta 500 urte geroago Pinta, Niña eta Santa Maria ontzietako harrabotsek esnatzen dutela. Rip Van Winkle honentzat bertako ingurua nahikoa ezaguna egingo zitzaion seguru asko, teknologian, gizarte ohituretan edo muga politikoetan aldaketak handiak izan arren.

Baina 1500. urteko marinela antzeko loak harrapatuta, XXI. mendeko iphone baten ahotsa entzutean, egoera erabat ulertezinaren erdian esnatuko litzateke, inolako zalantzarik gabe.

Yuval Noah Harari historialariak aipu hau eskaintzen digu azken urteetako hazkunde hiperarin eta zurrunbilotsuaren berri emateko, eta datu batzuk ere ematen ditu: giza populazioa 14 aldiz biderkatu da, produkzioa 240 aldiz, eta energia kontsumoa lehenengoarekin alderatuta hala-ko 115 handiagoa da.

Ondorioak asko eta ugariak dira. Bat aipatzearren, ongizate honek sortarazi

duen hondakin kopuru jasanezina dugu. Itsaso guztiak, beste herrialdeak eta gure ingurua ere zaborrez bete ditugu. Historialariaren esanetan, atzera egiterik ez dagoen arren, dagoenarekin aurrerantzean zer egin erabaki ahal dugu oraindik.

Eta zer egin? Marco Aurelio filosofo estoikoak bide argi bat eskaintzen du: gure esku ez dagoena behatu, eta gure esku dagoenari ekin.

Larrabetzun 340 familia, herriko eskola eta bederatzi denda, taberna eta jabetxe atez ateko hondakinen kudeaketan parte hartzen ari dira. Ondorioetako bat honakoa: urtebeteko epean 70 tona hondakin zabortegi edo errausketa plantetara bidaltzea saihestu da. Eta aldi berean, hondakinekin kalitate handiko konposta lortu da.

Bestalde, baserritarrek herriko eskola bertoko hainbat elikagaiez hornitzen dute, eta baita gura duten lagunek ere, otzarakide proiektuaren bidez. Honek ez du batere zaborrik sortzen.



**INES SERRANO**  
Filosofian lizentziaduna

Erosketak egiterakoan norberak bere ontzi eta poltsak eramateak nabarmen murrizten du plastikoaren erabilera.

Ohituratxo hauek baliatuz, harrigarria da gure etxeko zabor poltsa nola txikitzen den ikustea, eta oraindik plastikoen aldentzea zaila bada ere, jarduerak hauek are gutxiago erabiltzera bultzatzen dute.

Mundua nahi dugun moduan eraldatzeko, etxeko txokoak jorratzea jarrera estoiko ona izan daiteke, ekin diezaigun ba!

**J**aio nintzen herrian igaro nituen bizitzako lehen 20 urteak; gero Erasmus egin nuen Ingalaterran. Ingelesak, espainolak, italiarrak... ezagutu nituen, baina hinduak eta nigeriarrak ere bai. Ez nintzen, beraz, europarrago sentitu; gogo handirik ere ez neukan. Buelatu, eta Txorierritik ordubetera dagoen hiri batera joan nintzen ikasketak amaitzera, han ere akaso inoiz izan ez nuen leku nortasuna errekuuperatu ezinik.

Aurten berriro alde egin dut eta etxea non daukadan ere ez dakit. Atzerrira joandako euskaldunak badaki *where are you from?* galderaren erantzunari segitzen dion esplikazioa luzea izaten dela; luzatu

## Inongoa ez



**AZLER GARCIA**  
Ikaslea

nahi badu behintzat. Esplikazioa eman ala ez, ordea, ez naiz benetako sentitzen, nire erroen ordezkari baldar bezala baino.

Ez pentsa eskertzen ez dudarik esperimentzia sasi-*high class* horiek guztiak eduki izana, baina ez didate noraez identitariatik irteten lagundu. Bizi izan naizen lekuak maite ditudan arren, sentsazio konplexua da leku bati lotuta sentitzea eta nortasuna leku batek dakartzan kultur balioen gainean eraikitzea. Martetarra ote naiz? Martetarrek badute nongoak izan. Inongoa al zara zu?

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sallube, 2 DERIO      Tel: 94 608 95 31

**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Unibe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak  
zentro bakar batean  
—Aurrekontua doan  
—Especialitatea:  
umeak

**ArtileArtean**

Mungialde. 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com



# BERBALAGUN

Euskaraz berba egiteko eta bultzatzeko taldeak

Jarraitzen  
dugu euskaraz egiten  
**taldeko bideodeien**  
bidez

**Ikasi**

**Lagundu**

**Ondo pasa**

**MINTZATU!!!**

**Erabili**

**Berbaz berba bidea EGITEN**

**Eman izena!** 635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea:





# Inauterietako protagonistak

a: Juanjo Ortiz



Inauteriak ospatu genituenean, ia ez genuen koronabirusaren berririk. Ekin tzak Larrabetzun, Lezaman, Zamudion eta Derion egin ziren lehenik, otsailaren 22an eta 23an; eta handik zortzi, Sondikan, ohikoa den moduan. Inauteriak urrun ditugu, beharbada, baina garrantzitsuak dira Txorierrin eta batez ere Sondikan. Herriak erabat murgiltzen dira jaian, eta denetarikoz moztarrok ikusten ditugu kalean: pailazoak, mexikarrak, errusiarrak, piratak, eskautak, *Grease* filmaren protagonistak, estralurtarrak... Moztarrok kolorea eta distira ematen diote jaiari, baina jantzien azpian gauden lagunok benetako protagonistak gara, Inauteriekin bat egiten dugulako. Aurten primeran pasatu dugu eta datorren urtean ere hala egingo dugu.



**LOREGARBI** **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Garbi-ikusiak, orokorrean  
Auzokoen komunitateak  
Mantentze garbi-ikusiak  
Bulegoak eta lokalak  
Otroa amariako garbikerak  
Itxarotzak  
Zaberrak

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

**LEIRE BEGOÑA**

**ULE-APAINDEGIA**

MUNICIALE ETORRIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai leaguz Facebook-en

**KAFETEGIA**

**IAZI**

**JATETXEA**

Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel.: 944 54 29 56





**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

**Bizkaia**

- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55

**ELORRIETA**  
**INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**



# Haur-literaturako Mikel Zarate saria



Lur Gallastegi 2018an irabazi zuen saria. a: Elkar

Lezamako Udalak eta Elkar argitale-txeak Mikel Zarate lehiaketa antolatu dute hamargarren aldiz. Lezamarrak euskal kulturaren alde egindako lana gogora ekarri-ta, lehiaketak umeentzako irakurgai be-riak sortzea eta idazleen lana bultzatzea ditu helburu. Saria hutsik gelditu zen iaz.

Lehiaketan 18 urtetik gorako lagunek hartu dezakete parte. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako (sei urtetik 12 urtera bitar-tekoak) kontakizunak aurkeztu beharko dituzte, euskaraz sortuak, jatorrizkoak,

beste inondik moldatu gabeak eta aurre-tik saririk jaso ez dutenak edo argitaratu ez direnak. Lanek gutxienez 10 orrialde eta gehienez 50 orrialde izan beharko dituzte, eta Din-A4 formatuan aurkeztu beharko dira tarte bikoitza utzita.

Lanak maiatzaren 31ra arte bidali ahalgo dira udaletxera: Lezamako Udala – Mikel Zarate Saria, Aretxalde 1, 48196 Lezama. Hiru ale aurkeztu beharko dira agerian idazlea nor den azaldu barik, eta horiekin batera gutun-azal txiki bat. Gu-

## Okerrak zuzenduz

Aurreko alean, Lezama Bizirik elkarteak Silicatos de Malpica enpre-sa handitzeari alegazioa aurkeztu ziola jakinarazi genuen zortzigarren orrialdean. Albiste horretan enpresa Lezaman dagoela esan genuen, bai-na informazioa ez da guztiz zuzena: enpresa Lezamaren eta Zamudioaren arteko mugan dago.

Bestalde, 11. orrialdean, Jon Goikouria Larrabeiti fotokazateriak Arkaitz Meaberi egindako argazkia argitaratu genuen. Meaberen biga-rren abizena txarto idatzi genuen: Tontorregi gabe, Torrontegi da; hau da, bere izen-abizenak hauek dira: Arkaitz Meabe Torrontegi. Barkatu eragozpenak.

tun-azalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua adieraziko da, eta barruan idaz-learen izen-abizenak, helbidea, telefonoa idatziko dira; nortasun agiriaren fotokopia ere sartuko da.

Epaimahaia Leire Bilbao Barrueta-beñak, Julen Gabiria Larak eta Xabier Mendiguren Elizegik osatuko dute eta erabakia ekainaren 30erako hartu behar-ko dute. Irabazleak 3.000 euroko saria jasoko du, baina, epaimahaiaren iritziz, gutxieneko kalitateko lanik ez balego, ez litzateke saririk emango. Elkar argi-taletxeak saria jakinarazten denetik sei hilabeteren buruan argitaratuko du lana; alabaina, lanaren jabea idazlea izango da eta egile-eskubideak ordainduko zaizkio.

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

**Carrefour express**

ORDUTEGIA  
Astelchenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**BIDE-GORRI**

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

**AmAr ileapaindegia**

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburribata:  
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419





## Lanbidek arreta pertsonalizatuko zerbitzua eskainiko du Sondikan

Euskal Enplegu Zerbitzuak arreta-gune berriak ireki ditu Arabako eta Bizkaiko hainbat herri txikitan, eta horien artean Sondika dago. Gune horretan, Txorierriko biztanleek zein enpresek Lanbidek eskaintzen dituen zerbitzuak eta baliabideak jaso ahal izango dituzte, berez dagokien Lanbideko bulegora joan beharrik gabe. Sondikako bulegoa Egaz Txorierri atondu da (Txorierri etorbidea 46) eta bertan arreta emango zaie Sondikako, Loiuko, Derioko, Zamudioko, Lezamako eta La-

rrabetzuko herritarrei. Zerbitzua hilaren lehenengo eta hirugarren asteetako astelehenean eskainiko da, eta erabiltzaileek enpleguaren inguruan Lanbidek ematen dituen laguntza-prozesuei lotutako edozein gai kontsultatu ahaliko dute, hala nola enplegarritasuneko diagnostikoak egitea eta prestazioak eskatzea (Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria). Horretarako, banakako arreta tutorizatua jasoko dute.

## Hitzarmena, Done Jakue Bidearen Elkartarekin

Done Jakue Bidearen Borondatezko Zaintzaileen Elkartek eta Larrabetzuko Udalak lankidetzatuna berretsi dute. Hitzarmenean jasodenez, udalak Errebale jauregian atondutako aterpea ipiniko du elkartearen eskura, eta horrek instalazioak zaintzea eta erromesak artatzea izango ditu ardura. Aterpean, egunero 22 lagun hartzeko lekua dago, baina beste 10 leku gehiago eskaini daitezke. Bestalde, elkar-  
teak 500 euro emango dio udalari uraren eta argiaren urteko gastuak ordaintzeko, eta aterpea mantentzeko beharrezkoak diren gastuak ere ordainduko ditu, hala nola garbiketa, botikina eta tresneria. Iaz 3.500 lagunek baino gehiagok lo egin zuten Larrabetzuko aterpean.



**ama**  
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**Alaia**  
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua  
Berteko produktuak

Talleri, 5  
48170 Zamudio  
94 485 05 85

**Arantza Amondarain Lasa**  
Ginekologoa

Txarriren etorbidea, 9-4  
413. bulegoa  
48150 Derio

Telefonoa eta lasa  
94 454 44 98  
a.amondarain@euskalnet.net

**XURREGOITI**  
**JATETXEA**

Laurietako etorbidea, 27  
48180 Lodu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restaurantexurregoitik.com

**elekma**

URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK

Izateko markak • Preziozko onak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Txarriren etorbidea, 25-3.N. 48180 Lodu  
T: 944 599 232  
www.elekma.es




## Deriok Haurren Hirien Sarearekin egin du bat

Sarea Francesco Tonucciren La citta dei bambini egitasmoari lotuta dago, eta umeen ikuspuntutik abiatuta herriak aldatzea du helburu, ikaskuntza osasungarria, parte-hartzailea eta inklusiboa ardaztat duten inguruneak sortzeko.

Horren harira, udalak lehenengo urratsa egin du eta Umeen Kontseilua eratu du. Kontseilua lehen hezkuntzako 4. eta 5. mailetako 19 umek eta udal-ordezkariek osatzen dute, herriko umeen eta udalaren arteko harremana hobetzeko asmoz. Lehen bilera gurasoei batu zen, eta egitasmoaren helburuak azaltzeaz gainera, kontseiluaren batzarretan aztertuko diren gaiak zehaztu zituzten. Horri lotuta, udalak gogora ekarri du dagoe-neko kontseiluarekin Lagunekin eskolara proiektua jorratzen dabilatzala.

Umeen kontseilua hilabeterik behin bilduko da Larrabari baserrian, eta beharrezkoa izanez gero, teknika-riek eta politika-riek ere hartuko dute parte bileretan.



## 525 sinatura, Larrabetzun medikuzerbitzua urte osoan berma dadin

Larrabetzuko medikuak oporrak hartu zituen abenduaren 30etik urtarrilaren 3ra bitartean, eta egun horietan Osakidetzak ez zuen ordezkorik ipini. Ondorioz, herritarrek Galdakaoko anbulatoriora joan behar izan zuten hango medikuak artatu zitzen. Bi asteetan sinadurak batu dira mediku-zerbitzua urte osoan berma dadin, eta guztira 525 sinadura jaso dira. Larrabetzun 2.064 biztanle daude.

Zenbait komunikabidetara bidalitako gutunean adierazi dutenez, herrian aipatutako egunetan mediku-zerbitzurik ez egoteak egonezina sortu du herritarren artean eta hainbat kaltetu izan dira. "Ho-

rrelakorik berriro gerta ez dadin, zera exijitu nahi dugu: bertako medikuak dagozkion arrazoiengatik bere postuan egoterik ez badu, ordezko mediku bat ziurtatzea".

Bestalde, otsaileko udalbatzan gai honi lotutako adierazpen instituzionala onartu zuten aho batez. Adierazpen horretan, herriko osasun-zentroko arduradunei eskatu diete larrabetzuarrek mediku-zerbitzua egunero izateko duten eskubidea bermatzeko eta halako egoerarik berriro gerta ez dadin neurriak hartzeko. Jakinarazitakoaren arabera, Larrabetzuko Udalak sinadurak eta adierazpen instituzionala bidaliko dizkio Osakidetzari.



**MARTXOAREN 8A.**– Euskal Herriko mugimendu feministak Emakumeen Nazioarteko Egunean kaleak betetzera deitu zuen "eskuin mutur zaharkituari, misoginoari eta homofoboari aurre egiteko. Milaka emakume atera ziren kalera, eta Txorierriko talde feministek, elkarteek eta udalek ere ekintza anitz egin zituzten Martxoaren 8aren inguruan; elkarretaratzeak, hitzaldiak, tailerrak eta antzezlanak, haien artean.



## Izenik gabeko heroiak

COVID19 birusaren aurka borrokatzen ari diren mediku, erizain, sanitario eta, oro har, osasunaren esparruko profesionalak dira hil honetako protagonista nagusiak, kapa baztertu eta bere ordezkari maskara jantzi dutenak. Azken egun hauetan, etxean, itxialdi jasangaitza pairatzen ari direla esaten duten berekoi guztiak gonbidatuko nituzke, momentu batez bada ere, Txorierrikoak ez ezik, munduko profesionalak ere egiten dabilten lan izugarriaren inguruan hausnartzera. Haiek bai benetako heroiak.

#EtxeanGeratukoNaiz

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti



**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |  
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |  
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen  
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

**TEL. 94 424 38 34**



# “Gero eta sozialagoak izateaz gainera, gero eta gehiago eragin behar dugu

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

## Zer deritzezu COVID19aren hedapena gelditzeko lan eta ekonomia arloetan hartutako erabakiei?

Guk funtsezkoak ez diren jarduera guztiak gelditzeko eskatzen dugu, inkoherentzia handia baita etxean egoteko agindua ematea, baina lanera ateratzeko betebeharrari eustea. Ildo horretan, eta hartutako neurrien ondorioak arintzeko, gobernuek ezohiko prestazio ekonomikoak ezarri behar dituztela uste dugu, esaterako, kotizazio-oinarriaren estaldura % 100 langile guztientzat zein langabetuentzat. Gainera, ikastetxeen jarduera eten izanak sortutako zaintza-lana prestazio batek bermatu behar du. Administrazioek eta enpresek lan egin behar dutenen osasuna bermatu behar dute, eta administrazioek bere gain hartu behar dute prebentzio-zerbitzuen eta mutuen kontrola. Bestalde, ERTEak beti negoziatu behar dira eta enpresek ezin dute inondik inora baimen osoa izan ERTEak nahi duten moduan erabiltzeko. Kontratazioa handitu behar da garbiketa eta zainketa sektoreetan eta gobernuek oinarrizko eskubideak bermatu behar dizkiete pertsona guztiei.

## Novaltiako gatazkaren harira, gogorra.

Bai, baina badakite euren lan-baldintzak hobetzeko bide bakarra dela. Guk ez dugu eskuzabaltasun enpresariala ezagutzen; gauzak borrokatu behar dira. Sindikatuaren eginkizuna jendea antolatzea da, eta greba egitea erabakitzen badute, euren ondoan egotea eta erresistentzia-kutxa euren eskura ipintzea.

## Urtarrilaren 30eko greba orokorrean adierazi zenutenez, greba ez da helmuga, abiapuntua baizik.

Greba-eskubidea demokraziaren elementua da, eta guk kezka eta lehentasunak maila politikoa jartzeko eskumena eta beharra aldarrikatzen dugu. Aurreko grebekin alderatuta, greba berezia izan zen, aberatsagoa, eta ez zen ikuspegi sindikal klasikotik egin, hainbat eragileren arteko aliantzaren bidez baizik. Gainera,

MITXEL LAKUNTZA | ELA sindikatuaren idazkari nagusia Novaltia enpresako langile batzuek zortzi hilabete daramatzate greban eta ELAko idazkari nagusia Zamudion izan zen martxoan, langileei elkartasuna adierazteko. Lakuntzarekin sindikalismoaz eta gaurkotasunaz mintzatu gara.



gauza batzuk utzi ditu agerian, esaterako, lehendakariak ez dituela gure eskaerak entzun nahi. Oso larria da hori eta adierazten du politikari eta erakunde batzuk oso urruti daudela gizartearen zati batetik. Desberdintasuna eta pobrezia gizartearen zati horretan hain zuzen ere areagotzen dira. Hala, prekariedade ez da pasakorra; estruktural bihurtu da hainbat pertsonarentzat.

## Zein da hurrengo urratsa?

Egindako interpelazioak kudeatu behar dira. Interpelazio zuzena egin genion Madrilgo gobernuari negoziazio kolektiboaren estatizazioaren harira eta ikusi behar da nola erantzuten duten. Eusko Jaurlaritzari ere aldarrikapen zehatz batzuk helarazi genizkion; pentsio minimoak, tartean. Gai horretan eskumenik ez dutela

# sindikatuok politikan”

diote, baina gezurra da: badute eta guk ekinean jarraitu behar dugu. Patronalaren zain ere bagaude, proposamen batzuk egin dizkiogu-eta, adibidez, lanbidearteko akordioa eta 35 orduko lanaldia. Bestalde, guk beste interpelazio bat egiten diogu herri honetako ezkerari, guretzat aitor-tza dialektikoa ez baita baliagarria; praxia behar dugu. Koherentzia minimo bat ere eskatzen dugu. Esate baterako, EH Bilduk egin zuen moduan, ez dira bateragarriak egun batean greba orokorra babestea eta hurrengoan gastu-arauaren bozketan abstenitzea, gobernuarekin zure mugak adosten zabiltzalako.

**ELAren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko tira-birak jakinak dira.**

Arlo sozialean, politikak patronalarentzat eta gehien dutenentzat egin dira. Aldaketa egin bada, enpresen gaineko zergak jaisteko izan da, eta aurrekontuak gero eta gehiago dira langileon bizkar. Arlo sindikalari dagokionez, gobernuak patronala denean zer egiten duen aztertu beharra dago, gurea administrazio publikoan aldi baterako langile gehien duen Estatuko erkidegoa baita. Gobernuak eredia izan beharko luke eta ez da. Azken 20 urteetan pribatizazioa bultzatu da dirua aurrezteko eta langileei lan-baldintzak eta soldata murriztu zaizkie; sektore azpikontratatu guztiak sektore pribatizatuak dira eta, gure ustez, publikoak izan beharko lirateke. Azkenik, eta sindikatu abertzalea garen heinean, ez dugu sinesten Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana parekoen arteko harremana denik, Eusko Jaurlaritzak hala sinestarazi nahi badigu ere. Alde biek ez dute pisu bera eta horrek LOMCE legean, lan-eskaintza publikoak egiteko mugetan, gastu-arauan... du isla.

**Gizarte-elkarrizketarako Mahaia gehiengo duzuen sindikatu barik osatu da. Mahaia baino, alfonbra dela adierazi duzue.**

Ekimen hori ez da demokratikoa, hutsik dago eta propaganda egiteko besterik ez du balio. Gure aburuz, hor ateratzen den argazkia lotsagarria da, baita argazki hori zein normaltasunez zabaltzen den ere,

*“Prekarietatea ez da pasakorra; estruktural bihurtu da hainbat pertsonarentzat”*

*“Politikak patronalarentzat eta gehien dutenentzat egin dira”*

*“Gizarte-elkarrizketarako Mahaia propaganda egiteko besterik ez du balio”*

nahiz eta bertan bakarrik ordezkartza sindikalaren % 28 egon. Adostu dutena ere lotsagarria da eta ez dute ezta neurri bat ere hartu prekarietatearen kontra. Era berean, oso larria da soldata-arrakala nola aztertzen duten: tartean emakumeen bokazio-arazo dagoela diote; hara! Eta hori sektore feminizatuak modu sakonean aztertu barik esaten dute.

**Soldata-arrakala lehentasuna da ELArentzat?**

Bai, gure lehentasunetako bat da. Sistemak sektore batzuetara bideratzen ditu emakumeak, eta gaur egun greban dauden sektoreetan emakumeak dira nagusi: Gipuzkoako zahar-etxeetako langileak, garbikuntza Hezkuntzan eta etxer etxeko zerbitzua. Gipuzkoako zahar-etxeen gatazkaren harira, Markel Olanok esan zuen langileen eskaerak aintzat hartuko balira sektorea ez litzatekeela bideragarria izango, eta oso hitz lotsagarriak dira, beste modu batean hau adierazi nahi dute eta: sektore batzuk bideragarriak izateko, emakumeak esplotatu behar dira. Soldata-arrakalak arduradun zuzena dauka eta administrazioetik hasten da, batzuetan sektore pribatizatuak edo azpikontratatuak direlako. Bestalde, sistema kapitalistak eta hetero patriarkatuak gizarteari zer nolako ereduak uzten dizkion ere aztertu beharra dago; zaintzarako, adibidez.

**Prekarietatearen alderik ankerrena lan-istripuak dira. Lerro hauek idatzi orduko Hego Euskal Herrian 15 pertsona hil dira lan-istripuan.**

Eztabaida horri ezin zaio heldu lan-baldintzez eta lan-merkatuaz hitz egin barik. Non daude prebentzioa, ikuskapenak, baliabideak, zigorrak...? Begi-bistan dago ez direla nahikoak. Benetako politika bat behar da horri jarraipena egiteko. Eta, jakina, lan-istripuen atzean azpikontratazioak daude, eta lan-erreformak. Patronalak lan-erreforma defendatzen duenean, gauza horietaz hitz egiten dabil; guk badakigu berme gehiago egonez gero, lan-istripu gutxiago egongo liratekeela.

**Besteak beste, lan- eta pentsio-erreformak indargabetzeko eta negoziazio kolektiboa berreskuratzeko eskatu diozue Sanchezen gobernuari. Badago borondaterik?**

Eskuin-muturraren aurrean, beste gobernu-eredu bat osatu da eta gauza batzuk positibotzat jo behar dira; hala ere, musika eta hitza bereizi behar dira. Lan-erreforma indargabetuko zutela izan zuten, baina jada ez dute diskurtso bera. Pentsioekin zer egingo duten ere ikusiko dugu; nolana ere, bidea zein izango den ohartarazten dabilta: erretiroko adina luzatzea. Espainiako patronala eta botere ekonomikoak nahiko lasai daude eta hori adierazgarria da. Bestetik, negoziazio kolektiboaren harira, lehen egoerara itzultzeko eskatu diogu gobernuari; hau da, gure lan-baldintzak berton negoziatu ahal izatea eta hemengo lan-hitzarmenak lehentasuna izan dezaten. Eskaera alderdi soberanistei ere egin diegu, parlamentuko aritmetika aldatu denez, euren botoak ere beharrezkoak baitira.

**Zeintzuk dira sindikatuaren erronkak?**

Lehenengo eta behin, prekarietateari praktikan aurre egitea. Enpresa bakoitzean nolako estrategia ezartzea aztertu beharra dago: soldata-arrakala, kontratu-motak, lan-osasuna... Halaber, gure eginkizun sozialean eta politikoan sakondu behar dugu, nolako gizartea eratzen ari den kontuan hartuta – zaintza, politika publikoak, fiskaltasuna...–, gure arazoak ez direlako enpresan amaitzen. Beraz, nire ustez, gero eta sozialagoak izateaz gainera, sindikatuok gero eta gehiago eragin behar dugu politikan. Bestalde, sindikatu feminista izan nahi dugu. Gainerako erakundeek moduan, kontraesanak ditugu eta gure barnera begiratu behar dugu gauza batzuk aldatzeko.



# “Kirol-azpiegitura gehiago behar dira, gazteok bertan entrenatu eta lehiatu gaitezten”

LEIRE BARCIA | atleta

Leire Barcia Díaz (Sondika, 2003) bederatzi urterekin hasi zen atletismoa egiten. Zazpi denboralditan hainbat distantzian ibili da eta hainbat entrenatzaile izan ditu; orain bere lekua topatu du Loiuko Beste Bira kirol-klubean eta 400 metroko distantzian, entrenatzaile Enrique Castelo duela. Atletak kirol hau gozatzen du eta berari esker hazi da atleta moduan eta jendea ezagutu du, nahiz eta entrenamenduak Faduran egin behar dituen, Sondikan ez baitago atletismo-pista egokirik. Neguko denboraldia amaituta, kirol honi buruz duen iritzia helarazi digu.

t: Igor Barcia / a: Aitor Sanchoyerto

## Zergatik hasi zinen atletismoan?

Inguruko jende guztiak egiten zuelako. Hala ere, apur bat burugogorra naizenez, hasieran ezetz esan nuen eta beste kirol batzuetan saiatu nintzen, harik eta lagun batek atletismoan izena eman zuen arte: berarekin hasi nintzen.

## Zein kirolean saiatu zinen atletismoan baino lehen?

Apur bat denerik egin nuen: igeriketa, futbola, igeriketa sinkronizatua, baita balleta ere. Egia esan, kirol batean eta bestean ibili nintzen, ez nuelako topatzen gustukoena.

## Atletismoan hasi zinen eta erabat erakarri zintuen. Exijentzia handiko kirola da?

Bai, atletismoa gehien gustatzen zaidan kirola da, erabat erakartzen nau eta ez dut inoiz pentsatu hori egiteari uztea. Eta bai, exigentzia handiko kirola da: ia egunero entrenatu behar naiz, eta kostatu egiten da. Hala ere, oso ondo daramat.

## Zer da gehien gustatzen zaizuna?

*“Exijentzia handiko kirola da: ia egunero entrenatu behar naiz, eta kostatu egiten da. Hala ere, oso ondo daramat”*

Korrika egiteaz gainera, beste proba batzuk egiteko aukera dagoela. Nik 400 metroko distantzia egiten dut orain, hura da nire espezialitatea, baina 60 metroko eta 200 metroko distantzietan ere banabil abiadura lantzeko.

## Herri txikia izan arren, Loiuk atletismoaren aldeko apustua egin du. Beharrezkoak dira Beste Bira bezalako proiektuak, gazteek kirola eta hainbat espezialitate egin ahal izateko?

Loiuk atletismo klubaren aldeko apustua egin izanak asko poztzen nau. Nahiz eta atletismoa egiten zuen jendea egon, ez zegoen klub bat guztiok batera egin ahal izateko eta, futbola eta saskibaloia barik,

*“Nire eredu lagungarria izan daiteke umeak atletismoan hasi daitezten”*

gazteok beste kirol batean ibili ahal izateko.

## Ume-kopuru handia dago klubean. Atletismoa egitera animatzen dituzu?

Bai, jendea atletismoan saiatzera animatuko nuke, niri gertatutakoa beraie ere gerta dakieke eta: egun batean saiatzen zara, gustatzen zaizu eta azkenean atletismoa egiten duzu. Saiatu daitezela.

## Eredua izan zaitezke korrika egiten hasten diren umeentzat?

Ez dut neure burua eredutzat hartzen, baina uste dut nire eredu lagungarria izan daitekeela atletismoan hasi daitezten.

## Ikasketak eta kirola uztartu daitezke?





Bai. Kirolak denbora kentzen duela egia bada ere, ondo antolatu behar dugu, eta denerako denbora atera: egin daiteke.

#### **Beti egin duzu kirola Txorierrin?**

Ez. Sondikako eskolan futbola egin nuen, baina gainerakoan beti ibili naiz Txorierritik kanpo. Nire ustez, kirol-azpiegitura eta proiektu gehiago behar dira eskualdean, gazteok bertan entrenatu eta lehiatu gaitezten eta Bilbora edo Fadurara joan behar ez izateko.

#### **Izan ere, haranean abiadura behar moduan lantzeko lekurik ez dagoenez, Faduran entrenatzen zara, ezta?**

Bai, horrela da; Faduraraino joan behar dut, hurbilen dagoen pista delako eta, gainera, orain entrenatzailea, Enrique,

han dudalako. Ez da arazoa niretzat, baina egia da Txorierrin atletismoa egiteko azpiegitura egokiak behar direla, ez baitago. Klubeko txikiak Larrondoko eta Derioko frontoietan entrenatu daitezke neguan, udalak konprometitu direlako; hala ere, horietatik aparte ez dago ezer.

#### **Zamudion entrenatu zara inoiz. Pena ematen du hain txarto dagoen 400 metroko pista bat izateak?**

Entrenamenduak egin ahal izateko, niri eta taldekide askori primeran etorriko litzaiguke behar den moduko pista bat izatea; eta ziur nago jende gehiago animatuko litzatekeela atletismoa egitera.

#### **Emakumea zaren heinean, zer esango zenieke zure adineko neskei?**

Animatu daitezela, atletismoan emakume gehiago behar ditugu eta.

#### **Zer eman dizu atletismoak orain arte?**

Dibertsioa eta jendea ezagutzea. Irabazten zein galtzen ikasi dut, eta ahalegiak egiten, hau banakako kirola delako. Gauza bat lortzeko entrenatzen bazara, egin dezakezu.

#### **Erreferenterik baduzu?**

Trihas Gebre gustatzen zait: krosean Espainiako txapelduna izan da zenbait aldiz. Txikia nintzenetik ezagutzen dut eta lagunak gara. Bere etxean izan naiz eta senideak izango bagina bezala tratatzen nau.

  
**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK  
Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60  
48170 Zamudio - Bizkaia

  
Zure taxi,  
Teorierikoa  
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu  
24h 94 480 09 09  
ERRESERBAK:  
www.taxisaeropuertoblbao.com

  
DESKARGATU APP-A  
TAXI FEMADE



## "Jardueretan parte hartzen duten ikasleen erantzuna beti da ona"



### PABLO HERNANDEZ | Haszten elkarteko fundatzailea

Mankomunitatearen Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua kirol egokitu eta inklusiboaren arloko hainbat jarduera egiten ari da. Jarduera horien berri izateko, Pablo Hernándezekin hitz egin dugu, Haszten elkarteko fundatzaile, kudeatzaile eta kirol teknikariarekin.

#### Zer da Haszten?

Haszten irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta Bizkaiko lurraldean dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko egiten du lan, jarduera fisikoaren eta kirol egokituaren eta inklusiboaren bidez.

#### Zer da kirol egokitua?

Edozein kirol diziplina egokitu ahal izatea bilatzen da, egoera bakoitzean dauden beharrak kontuan hartuta. Egokitzapen horretan eragina dute kirolariaren eta kirol-modalitatearen ezaugarriak. Hiru kirol baino ez daude dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat bakarrik direnak: Boccia (doitasun- eta estrategia-

jokoa da, petankaren antzekoa); Slaloma (kirol-modalitate honetan, ahalik eta denborarik laburrenean eta ahalik eta akats gutxien eginez, hainbat oztopoz osatutako zirkuitua egin behar da); eta Goallballa (itsuentzat eta ikusmen-urritasuna dutenentzat berariaz sortutako kirola; baloia eskuz jaurti behar da eta aurkako taldearen atean sartzea du helburu).

#### Zer programa zabiltzate egiten Txorierriin?

Oraingoz, lehenengo fasean, ingurunearen diagnostikoa egiten gabilta. Horretarako, eskualdeko dibertsitate funtzionalarekin zerikusia duten eragile eta erakundeekin bilerak egiteaz gain, sentsi-

bilizazioa egiten dugu ikastetxeetan. Gainera, kirol egokituko talde bat dinamizatzen dugu ostiraletan Derion.

Gero, bigarren fase bat etorriko litzateke, eta, horretarako, premia dagoela ikusiko bagenu, hainbat proposamen egingo genituzke: ekintzak, kirol-eskolak, kirol egokitua komunitatean ikusarazteko ekitaldiak, eta jarduera integratzaileetan laguntza ematea.

#### Derioko eskolan bada ostiraletan egokitutako kirol-talde bat. Nor joaten da? Zer kirol egiten duzue?

Multikirol-talde bat da, batez ere hartutako kalte zerebrala eta garuneko paralisia duten pertsonentzat, baina beste ezgaitasun batzuk dituzten kirolariak ere har dezakete parte. Helburu nagusia da pertsona horiek astean-asteen kirol espazio bat izatea, zenbait balio gizarteratu eta ikasteko, hala nola errespetua, adiskidetasuna, higieneak, lankidetzak, nork bere burua hobetzea..., psikomotrizitatea eta kirola landuz. Derioko Udalari, eskolari eta Mankomunitateari esker, Derioko ikastetxe publikoan egin dezakegu jarduera



*"Dibertsitate  
funtzionala duten  
pertsonen bizi-  
kalitatea hobetzeko  
egiten dugu lan"*

hori, eta, egia esan, oso instalazio egokiak ditugu, baita tratu atsegina, profesionala eta sentsibilizatua ere.

**Nola bizi dituzte programa horiek parte hartzen duten neska-mutilek?**

Urrats garrantzitsua da haien bizitzan. Esperientzia bikaina da talde baten partaide sentitzea, beharrezko baliabideekin, batez ere kontuan hartzen baditugu alde horretatik gizartean dauden zailtasunak. Ostiraletako saioa gogoz itxaroten dute; izan ere, euren bizitzak motibatzen dituzteko elementua da.

**Zer ematen diete familiei jarduera horiek?**

Familiak ere jarduera horietako protagonistak dira, eta eurentzat ere bada pozgarria ikustea beren seme-alabak gizartean nola egokitzen diren gainerako haurren aukera berberekin.

**Sentsibilizazio-tailerrak ere egiten dituzue ikastetxeetan. Nola planteatzen duzue jarduera hori? Zein da parte hartzen duten ikasleen erantzuna?**

Saio horretan lehen hezkuntza-ko azken mailetakoko ikasleek hiru jarduera egin behar dituzte: lehenengo mugikortasun murriztuko jarduera da, kirol-gurpildun aulkien bidez; bigarrena ikusmen-jarduera bat da, moztaroen eta kriskitin-baloien bidez egiten dena; eta, azkenik, informazio- eta gogoeta-jarduera bat, ikasleen arteko hausnarketa bilatzen duen bideo eta galderen bidez egiten dena. Ikasleen erantzuna beti da positiboa. Egia esan, hasieran egokitze-prozesu bat dago, eta errespetu handiz hartzen da kirol egokitua, baina, eguna aurrera doan heinean, konfiantza hartzen dute, eta gehiago sakondu daiteke mezu nagusian.

## Jantzi zaitez irizpide jasangarriekin



–Ez erosi zuntz sintetiko egindako jantzirik (poliester, nilona...).

–Aukeratu itzazu hauek: zuntz naturalak, kotoi organikoak, kotoi birziklatuak, lihoa, artile organikoak, artile birziklatuak, pinatexa (anana-hostoekin egina), mikro-silka (armiarma-sarea), poylana tencela edo lyoncela...

–Eros itzazu tokiko merkataritzako eta ekoizpeneko jantziak.

–Aukeratu ziurtagiriak dituzten arropak, hala nola: GOTS, OEKO-Tex, Naturtextil... Ziurtagirik zenbait alderdi egiaztatzen dituzte, esaterako zuntzen ekoizpen ekologikoa, zuritzea (oxigenoarekin egin bada, kloroarekin egitea debekatzen bada...), metal astunen eta substantzia kimikoen erabilera mugatzea, eta batzuek ekoizpen-kateko lan-baldintzak ere ziurtatzen dituzte.

–Eros ezazu bigarren eskuko arropadendetan.



## Agurrak euskaraz

Agurtzeko orduan, Bizkaitik kanpo "adio" (aio) ere erabiltzen da, baina "agur" da gure artean zabalaren dabilen berba. Hitz hori sasoi batean hasierako agurra zen, "salve" edo erromatarren "ave" haren parekoa. Askoz formalagoa den esapide bat ere badago: "agur t'erdí". Baina, egue- ra jakin batzuetan baino ez da erabiltzen, diskurtsoaren hasieran zein amaieran. Esaterako, "Agur t'erdí, ogi etorri, jaun- andreok, agur t'erdí".

Ezagun-ezagunak ditugu hasierako agurrik ohikoenak: "Egun on!" / "Eguerdí on!" / "Arrasti on!" ("Arratsalde on!" ere bai) / "Gabon!". Gogoratu kasu gehienetan hitz bitan idazten dela. "Gabon" da salbuespena. Eta nola erantzun agur horiei? Hemen dituzue aukera batzuk:

"Egun on, Agurtzane. Halaan ekarri". / "Arrasti on, Mikel. Baita zuri ere". / "Egun on, neska-mutikok. Bai, egun on". / "Gabon, laztana, ondo lo egin. Berdin...".

Hain formalak ez diren beste esapi- de batzuk ere badaude; hauek adibidez: "Kaixo, zer moduz?" / "Zelan zabilta?" / "Aupa". Eta horien erantzunak: "Ederto baten" / "Ondo esan beharko...".

Agurtzen dugu pertsona berriri ikus- teko asmoa badaukagu, honela agurtu dezakegu: "Gero arte" / "Bihar arte" / "Da- torren atera arte" / "Laster arte"... Au- rretik ezagutzen ez gunden pertsona bat aurkezten gaituztenean, honelakoak era- bil ditzakegu agurtzean: "Pozten nau zu ezagutzeak!" / "Baneukan zu ezagutzeko gogo!" / "Urte askotarako!"





## Aitatasuna hausnartuz

Nagore Lopez de Luzuriaga Comunion eta Leire Etxezarraga Estankona Txorierriko Mankomunitateak ama berrientzat diruz lagundutako talde batean elkartu ziren eta ezagutu: Lopez de Luzuriagak hile batzuk lehenago izan zuen alaba eta Etxezarraga taldearen sortzailea eta bideratzailea da. Taldea amatasunaren gaineko zalantzak eta bizipenak konfiantzaz partekatzeko gunea da, eta han egindako hausnarketen artean hau irten da: aitek ere kezka dituzte seme-alaben hazkuntzan duten zereginari buruz. Emakume biek eskarmentu handia dute psikoterapian eta aiten taldea osatzeko asmoa dute, horiek ere esperientziak partekatzeko lekua izan dezaten.

*t: Itxaso Marina Ondarroa*

Mundura jaiotzen direnean, seme-alabek aldaketa handia ekartzen diete familiari eta bikotekideen arteko harremanari. Aldaketa arlo emozionalean, sozialean, fisikoan zein ekonomikoan sortzen da eta gehienetan beharrezkoa da familiaren jatorrizko harremanak birdefinitzea. Lehenengo hileetan erlazio fusioatua izan ohi da amaren eta jaioberriaren artean, eta horrek aita lekuz kanpo sentitzea ekar dezake. Gainera, aitatasun-eredu berriak topatu nahi izateak egonezin erantsia

ekar diezaieke gizonei, askotan euren burua non kokatu ez dakite eta. "Halako taldeak oso aberasgarriak dira: esperientziak partekatzeaz gainera, beste batzuk ere norberaren egoeran daudela ohartzen gara, eta gertatzen zaiguna ez dela hain arraroa. Taldeak baliagarriak dira nork bere buruarengan konfiantza izateko, eta sostengu handia dira".

Lopez de Luzuriagaren eta Etxezarragaren ustez, garrantzitsua da aitek sentitzea umeen hazkuntzan beraiek ere inportanteak direla, eta etapa bakoitzean modu batean edo bestean

eragin dezaketela. "Jakina! Erlazio fusioatua horretan ezin izango dute, esaterako, umeari bularra eman, baina bainatu ahal dute, abestu, lotaratu... edo horiek bezain garrantzitsuak diren beste hainbat gauza egin. Amaz gain, beste mundu bat dagoela konturatuz joango da umea, eta aitek ere eginkizun garrantzitsua izango du etapa horietan guztietan. Taldea honetaz guztiaz hitz egiteko topagunea da, bakoitzaren esperientziatik eta kezka partekatuz".

Taldeak hazkuntzari lotutako ikuspuntuak partekatzeko gunek ere badira,

## Sustatzaileak

### Nagore Lopez de Luzuriaga Co-munion, psikologoa

Psikologian eta Haur Hezkuntzan lizentziaduna, hainbat esparrutan trebatu da eta gaur egun familia- eta bikotekide-terapian eta banakako terapian dihardu. Helduekin zein umee-kin egiten du lan, eta giza eskubideen testuinguruan lan psikosoziala eta klinikoa egin du. Hainbat ikerketatan hartu du parte peritu moduan, eta irakasle ibili da Psikologia Fakultatean zein Irakasleen Eskolan. Egun Gestalt terapiaren inguruko trebakuntza bukatzen dabil.

### Leire Etkezarraga Estankona, Gestalt terapeuta

Pedagogia ikasi zuen eta hainbat proiektutan ibili da hezkuntza ez formalean. Gestalt terapian trebatu zen. Zortzi urte ama izaten bakarrik eman zituen eta konturatu zen amek ez zutela kezka eta gogoetak partekatzeke gunerik. Horregatik amentzako taldeak sortzera animatu zen orain dela urte bi. Unibertsitateko irakaslea ere bada, eta nerabezaroari eta haurtzaroari zuzendutako Gestalt terapia ikasi du. Gaur egun, buruko osasun perinatalaren trebakuntza jasotzen dabil.

### Saioak

Azaldu digutenez, taldea Aste Santuaren ondoren martxan ipintzeko asmoa dute, edo COVID19ak sortutako alarma-egoeratik ateratzen garenean. "Printzipioz, zortzi saio izango dira; ordu eta erdiko saio bat, astean. Gutxienez zortzi partaide eta gehienez 12 partaide egongo dira, eta taldea Txorierriko hainbat adinetako aitei egongo da zabalik, izan ere, gure iritziz, jaioberri baten aita bost urteko ume baten aitarekin izatea lagungarria izan daiteke, egunerokotasunean aita horren esperientzia kontuan har baitezake". Hasiera batean, aditu biek hartuko dute taldearen norabidea, baina helburua da taldekideek eurek hausnartzeko gaiak mahai gainean ipintzea. Bestalde, umeen garapenerako ezinbestekoa den ezagutza psikopedagogiko apur bat ere jasoko dute. Saioak Derion izango dira, ElkarEkin zentroan.

"Sozialki, gizonen rol batzuei eutsi behar diete eta oso gune gutxi dute emozio-munduari buruz hitz egiteko eta hausnarketak partekatzeke. Are gehiago, ez dute sentimenduei, beldurrei, kezkei buruz hitz egiteko ohiturarik. Horregatik, beharbada, zaila izan daiteke taldea osatzea; hala ere, gure esperientzia kontuan hartuta, sinetsita gaude aientzako taldeak beharrezkoak direla eta horiek sortzeko gogoia dagoela".

Informazio gehiagorako eta izena emateko: [info@nagoreluzuriaga.com](mailto:info@nagoreluzuriaga.com) / [info@comosermadre.com](mailto:info@comosermadre.com).



**He-ahaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXPH  
Txorierriko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



**Enaitz**  
Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak  
94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama



**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



**ERREKA ONDO ETXEA**  
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak  
Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa.: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29



**PELUKERIA ESTETIKA LARRABETZU**  
Anguleri n<sup>o</sup> 2 Bajo - 48195 LARRABETZU  
Tel. 944 558 144



**IÑIGO BARCENA**  
Construcciones-Reformas  
Igeltserotza orokorra  
Especializatea:  
Xafra-lanak  
Zoruak  
944522910 - 665703312 - 652772018

*"Taldeak baliagarriak dira nork bere buruarengan konfiantza izateko, eta sostengu handia dira"*

*Hazkuntzari lotutako ikuspuntuak partekatzeke guneak ere badira, eta hartutako erabakiak baliozkotzeko*

hartutako erabakiak baliozkotzeko eta baita egin diren hautuez ohartzeko ere. "Gauza ez da esatea zer dagoen ondo eta zer ez, baizik eta, familiarengandik bera-rengandik edo kanpotik etor daitezkeen talka horien aurrean -nire garaian horrela egiten genuen-, bakoitzak bere irizpideei edo hartutako erabakiei eustea: nik norantza hau hartu dut eta ez da besteena baino hobea edo txarragoa; nirea da eta kito. Nolanahi ere, informazio gehiago eskuratzeko gunea ere izan daiteke, eta, beharrezkotzat jotzen badugu, gauzak birpentsatu".





# "Ziur nago etxean luze egongo garela"

MIREN BASARAS | Mikrobiologian doktorea Euskal Herriko Unibertsidadean

COVID19k alarma biztu dau munduan eta Espainiako Gobernuak etxean egoteko agindua eman dau haren hedapena geldiarazoteko. Gaixotasunaren haritik hainbat adituri entzun deutsagu komunikabideetan, eta horreetako bat Miren Basaras derioztarra izan da. Basaras Mikrobiologian doktorea da eta birusaren barri eman deusku. Bere bizitzea be izan dogu berbagai.

t/a: Gaizka Eguzkitza

## **Zein birus-mota da?**

Mikroskopioan ikusita, koroaren itxurea dau eta horregaitik deitzen da holan. Koronabirusaren familiako birus batzuek, lauzpabostek, gizakiak bakarrik kutsatzen dabez eta hotzeria eragiten dabe urtero. Beste batzuek animaliak kutsatzen dabez, eta beste batzuk animalien bitartez pasatzen dira gizakietara. Honeek dira: SARSa, 2002an agertu zena; MERSa, 2012an agertu zena; eta aurtengoa, SARS CoV-2. Azken horrek COVID19 gaixotasuna eragiten dau.

## **Zelan sortu da?**

Hipotesi asko dago. Iturburu garrantzitsuena Txinako animalien merkatu baten izan zan; beraz, hango animaliak aztertzen hasi ziran. Sugea eta pangolina aitatu dira, baina ez dago argi kutsatzailea zein animalia izan zan.

## **Birus barria da, ezezaguna.**

Bai, gizakiongan antzematen dan lehen aldia da, eta horregaitik dago kezka nabarmena. Barria dan guztiari errespetua euki behar jako. Ez dakigu zein izango dan birus honen jarrera, zelan garatuko dan.

## **Zeintzuk dira sintomak?**

Gripearen antzekoak dira. Kutsatutako gehienek ez dabe sintomarik, eta sintomak egotekotan, arinak dira: eztula, sukarra, arnas ezintasuna eta, batzuetan, eztarriko mina be bai. Hareek berez sendatzen dira. Kasu gutxi batzuetan, aldiz, % 14an edo, sintomak konplikatu egiten dira eta pneumonia agertzen da. Pneumonia horrek pertsona batzuegan okerrera egiten du: % 14 horretatik % 5ean. Kasu horreetan, arnas ezintasuna gero eta han-

*"Gizakian antzematen dan lehen aldia da, eta horregaitik dago kezka nabarmena"*

*"Dagozan botikak ez dira oso eraginkorrak, koronabirusaren kontra ez eze beste birusen kontra be"*

*"Normalean, nagusiak eta aldeztu aurretik sistema immunologikoa ahul dabenak baino ez dira hilten"*

diagoa da, beste organo batzuei egiten deute min, eta pertsona hori hil be egin daiteke. Zergaitik? Birus bat dalako eta birusen aurrean botika gitxi dogulako. Eta dagozanak ez dira oso eraginkorrak, ez koronabirusaren kontra, ez beste birusen kontra.

**Topatuko dabe tratamendu eraginkorrik?**

Horretan dabilz, baina luze joko dau. Lehenengoz, laborategian aztertu behar da; gero, animalietara eroan; animalietatik gizakira; eta akabuan konfirmatu behar da benetan seguruak eta eraginkorrak dirala.

## **Noz da kutsatzeko arriskurik handiena?**

Kutsadura gehienak sintomak agertu ostean gertatzen dira. Inkubazio-aldian kutsadura-maila oso baxua da, ia ez da gertatzen, baina ezin da inoz % 100ean ziurtatu.

## **Zein fasetan dago koronabirusa hemen?**

Gero eta kasu gehiago dagoz, eta uste dot oraindino ez garela gailurrera ailegau; hau da, kasu gehiago egongo dirala. Seguru antzean, kopuruak hurrengo asteetan egingo dau gora, baina ez dakigu noiz arte. Txinan, barbarako, kasuek nabarmen egin dabe behera.

## **Hain gaixotasun larria da?**

Koronabirusaren heriotza-tasa gripearena baino apur bat handiagoa da: gripeak % 1eko tasa dau; eta koronabirusak, % 2-3koa. Hildako asko be ez da egon Euskal Herrian, oraindik gaixotuen kopurua oso handia ez dalako, eta espero da antzeko tasari eustea. Halanda be, heriotzari jagokonez, inportantea da nabarmentzea nortzuk hiltzen dabilzan: nagusiak eta immunitate-sistema ahula dabenak, eta aldeztu aurretik beste patologia edo infekzio batzuk dabezanak, hain zuzen be. Horreek be sufritzen dabe gripeagaz. Gazteek eta umeek, barriz, ez dabe gaixotasuna hainbeste pairatzen; baleiteke, baina arraragoa izango litzateke. Beraz, gaixotasuna kontrolatzeko, osasun-erakundeek ezarritako neurriak betetzea da garrantzitsue-



Miren Basaras (Derio, 1968) Artea auzoan jaio zen, Seminarioaren atzean. "Aita Geldokoa da, eta ama, Deriokoa. Aitite eta amama be bertakoak ziran. Gurasoak baserritarak ziran eta izeko bigaz bizi ginan. Behiak genduazan eta izekoak Bilbon, plazan, saltzen ebazan barazkiak. Eta bost umeok laguntzea emoten geuntsien". Halandabe, berak ikastea erabagi eban. "Amak argi eban ikasi behar genduala, baserria oso gogorra zalako. Albaitaritza be gustetan jatan, baina kanpoan baino ez zan ikasten eta, azkenean, Biologia ikasi neban Leioan", esan dau.

Karrera amaitu ebanean, unibersidadean jarraitu eban. "Karreraren azken urteetan Mikrobiologiaren espezialitatea hartu neban. Era berean, 3. mailan, genetika-laborategian hasi nintzan lanean eta horrek guztiak doktoretzara eroan ninduan. Tesina izenekoa egin neban, eta gero, 1995ean, tesia, Basurtuko ospitalean, Ramon Cisterna doktoreagaz". Tesia

## Zientzia eta euskerea

C hepatitisaren gainean egin eban, "garai hatan kezka handia egoalako". Basarasena C hepatitisaren gaineko Estaduko lehenengo tesietako bat izan zan. Baina, hepatitis ez da derioztarrak ikertu dauan gai bakararra, besteak beste, txertoak, umetoki lepoko minbizia eta bakteriak be iker-tu dauz.

Tesia egiten ebala, 1992an, eskolea emoten hasi zan Leioan, batez be Medikuntza fakultadean, baina baita Odontologia eta Biokimika fakultadeetan be. "Azken urteotan irakaskuntza asko aldatu da. Medikuntzako ikasleak oso onak

dira, baina lehengoek interes handiagoa adierazoten eban. Ikasgaia amaitu dauan talde batek, adibidez, koronabirusaren inguruko tutoretza egiteko eskatu deust eta guztiak etorri dira; hori ez da normala gaur egun".

Basarasek eskola emoten disfrutatzen dau. Zientzia zabaltzea be gustetan jako eta horrer ekin deust azken urteotan. Esate baterako, otsailean, Adimena Agertokian programan hartu eban parte Baserri Antzokian, Derion. Gainera, hitzaldiak emon dauz, artikulak idatzi... "Interesgarria da ezagutza zientifikoa sustatzea eta, ahal dan neurrian, zabaltzea. Dibilgazioa gaztelaniz eta euskeraz egin dot, baina, batez be, euskeraz. Ez da erraza eta horrek esfortzua eskatzen deust, goi-mailako ezagutza hainbeste ez dakien lagunei helarazo behar deust edalako".

Agian horregaitik deitzen deustoe komunikabideek, koronabirusaren barri emoteko. "Bai, azken bolada honetan os-

*Besteak beste, txertoak, hepatitis, bakteriak eta umetoki lepoko minbizia ikertu dauz*

*"Lasai ibilteko eta, ahal dan neurrian, normaltasunez jokatzeko esango neuskio jenteari"*


na. Eta pertsona bat kutsatzen danean, horri jarraipena egitea.

### Herritarrei zer esan ahal deustegu?

Lasai ibilteko eta, ahal dan neurrian, normaltasunez jokatzeko. Ganera, funtsezkoa da higie-neurriak hartzea: garrantzitsua eskuak sarritan garbitzea da, eskuak guztia ikutzen dogulako.

### Etorkizunari begira, aurreikuspenen bat egin ahal da?

Batek daki! Zientzialariok hainbat galdera egiten deustagu geure buruari: zelan izango da koronabirusa 10 hilabete barru? Betiko geldituko da gure artean? Hori gertatu ezker, zelan egingo deusku kalte? Birusek aldatzeko joera dabe, eta normalean txarrerako izaten da, bortitza- go egiten diralako. Edo desagertuko da?



2002an, SARS birusa munduan zabaldu zan, baina berez desagertu zan. Baina garai hatan giza sarrerik ez zegoan eta komunikabideak erabat desberdinak ziran. 2002an oihartzun txikiagoa emon eutsoen SARS birusari, gaur egun koronabi-

rusari emoten jakonaren aldean. Esate baterako, nik Zientzia Kaiara unibersidadeko webgunean euskeraz eta koronabirusari buruz idatzitako artikulua bat Japoniara zabaldu da Twitterren bidez. Harrigarria da. Giza sareak oso garrantzitsuak izan



*"Unibersidadean  
euskeraren ezagutza  
handia da, baina  
erabilera, eskaka"*

tu eban. Gainera, beste lankide bate-  
gaz mikrobiologiari buruzko liburu bat  
idatzi eban euskeraz. "Unibersidadean,  
lehen euskal lerrotik ikasten ebenek  
euskeraz egiten eben euren artean.  
Baina orain... -eta sutan jarten naz-  
errieta egiten deutset batzuetan (kar,  
kar). «Zuek ez badozue erabilten, nork  
erabiliko dau, ba?», esaten deutset.  
Eta irakasleek gauza bera egiten dabe.  
Ezagutzea handia da, baina erabilera,  
eskasa. Unibersidadeak baliabideak  
jarri dauz euskera bultzatzeko: ikasgai  
gehienak euskeraz emoten dira, ha-  
maika euskarazko aldizkari eta liburu  
dagoz, irakasle gehienok elebidunak  
gara... Baina erabilera da erronka".

petsua naz (kar, kar). Herrian sarritan esa-  
ten deuste telebistan ikusi nautela. Gero  
eta gehiago deitzen deuste eta nik adie-  
razpenak prestatzen dodaz. Ia beste lan  
bat da. Nekarria da".

#### **Euskerea**

Basaras euskaldun zaharra da, baita  
euskaltzalea be. Unibersidadeko Euskera  
Batzordeko kidea da eta bere sailean atara  
zan lehenengo plaza elebiduna berak lor-

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA



# HADE

**EGIAZTATZE-DEIALDIAK ATZERATU EGINGO DIRA**

2020/03/16

Kontuan izanik, batetik, Euskadiko Herri Babeserako Plana Larrialdiei Aurregiteko bidea-Labi aktibatu dela, Euskal Autonomia Erkidegoan adierazitako osasun-larrialdiaren ondorioz eta, bestetik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez adierazitako alarma-egoera, biak COVID-19 birusak eragindako osasun arloko krisi-egoera kudeatzeko, HABEK epe berriak finkatuko ditu euskara-mailak egiaztatzeko prozedura guztietan: bai ebaluazio jarraituaren hariko egiaztatzegintzan, bai azterketa-deialdietan.





dira koronabirusaren gaineko informazioa zabaltzeko.

**Koronabirusa gurera etorri baino lehen, informazio egokia zabaltzeko herriarroi?**

Batez be lasaitasuna zabaltzeko. Hala be, gizarteak ez dau jakin gura izan zer eban aurrean: Txinan sortu zan, baina oso urrun dago. Eta Italiara heldu zanean be jentea ez zan oso jakituna izan. Hori izan da arazoa. Beharbada, ez da behar moduan adierazoz arazoa oso larria izan leitekeela, honaino heldu leitekeela eta arin etorri leitekeela. Eta esan dogunok, beharbada, ez deusagu jenteari modu egokian azaldu.

**Birusa itzel hedatu da. Adituek espero eben hainbeste?**

Bai, adituek espero ebena izan da. Jentea hartu-emonetan badabil, kutsatzeko arriskua handiagoa da. Beraz, neurri zorrotzak hartu dabez, birusa astiroago zabaltzeko. Argi euki behar dogu birusa guregana helduko dala bai ala bai, guztiok kutsatuko gaituela, baina lortu behar dogu guztiok aldi berean kutsatuta ez egotea. Holan arinduko doguz ospitaleak; bestela, guztiok garai berean birusak

*"Birusak guztiok kutsatuko gaitu, baina lortu behar dogu guztiok aldi berean kutsatuta ez egotea"*

*"Behintzat Aste Santura arte emongo dogu etxean. Neurri zorrotzak hartu behar dira, birusa kontrolpean eukiteko"*

jota ospitalera joaten bagara, osasun-zerbitzuak kolapsatu egingo dira. Hobe geunke apurka-apurka kutsatuko bagina. Izan be, gehienok ez dogu sintoma larririk eukiko, lehen esan dodan moduan; baina sintoma larriak dabezanez gorriak ikusiko dabez, ospitaleek gainezka egiten bada-be.

**Orduan, zer egingo dogu?**

Adi-adi egon behar dogu. Kutsatzeko arriskua saihesteko neurriak hartu dira eta normala da, gaixotasuna kontrol barik dabilalako. Kasu gehiago egongo dira, baina apurka-apurka jaitziko dira. Hori izango litzateke normalena.

**Gobernuak beste 15 egun gehiago etxean egoteko agindua emon dau. Uste dozu etxean gelditze hori luzatuko dala? Noz arte?**

Bai, argi zegoan 15 egun oso denbora-tarte txikia zala. Beraz, nik uste dot baietz, nabarmen luzatuko dala etxean gelditze-ko agindua. Zehatz-mehatz ezin deusut esan. Irakurri dot aditu batzuen arabera udara arte egon beharko dogula etxean. Ez dakit hainbesterako izango dan ala ez, baina ziur nago etxean luze egongo garela. Birusa kontrolpean euki gura badogu, neurri zorrotzak hartu behar doguz.

**Zelan daroazu zuk etxean gelditzea?**

Ondo. Lanean jarraitzen dot, gradu amaierako lanak zuzentzen eta. Denbora eukiko dogu etxean egoteko, etxea garbitzeko, irakurtzeko, nork bere zaletasunak lantzeko... Baikor agertu behar gara.

## Konekta zaitez gurekin!



**Facebook:**  
aikoraldizkaria



**Twitter:**  
@Aikortxorierrri



**Instagram:**  
aikor.aldizkaria



**Webgunea:**  
www.aikor.eus



## Zure argazkiak eta albisteak bidali




**WhatsApp:**  
688 86 41 35



**E-posta:**  
aikortxori@aikor.com

## Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.



# Solidarioak pandemiaren aurrean

COVID19aren hedapena gelditzeko koarentenaren harira, soilik hauek egitera irten ahal gara kalera: jatekoak erostera, farmaziara edo medikuarenera joatera, lanera joan eta handik etxera itzultzera eta laguntza behar duten senideak artatzera. Bakarrik bizi izateaz gainera, pertsona askok ez dute erosketak egiteko modurik edota nork lagundu. Herritarrak, udalak eta Gurutze Gorria boluntarioen sareak antolatzen dabilta pertsona horiei laguntzeko.

Sondikako Udala, esate baterako, Bizkaiko Foru Aldundiarekin dabil zerbitzua koordinatzen. Boluntarioek sondikagara@sondika.eus helbide elektronikora idatzi ahal dute, edo 944 535 010 telefono-zenbakira deitu. Datu hauek adierazi behar dituzte: izen-abizenak, auzoa, telefono-zenbakia eta e-maila. Bestetik, udalak jakinarazi duenez, behar izanez gero, gizarte-larrialdietarako dirulaguntza handituko du. Loiu, udala@loiu.eus helbide elektronikora bidali behar da mezua.

Derioko Udala, bestalde, boluntarioak koordinatzen dabil Gurutze Gorriarekin batera. Laguntzeko prest dauden pertsonak arduradunekin ipini daitezke harremanetan laguntza@deriokoudala.net helbidean edo 688 867 503 telefono-zenbakian (astelehenetik barikura, 09:00etatik 22:00etara; eta zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara). Era berean, laguntza behar duenak alkatetza. derio@deriokoudala.net helbidera idatzi ahal du, edo 944 542 2 43 (Gizarte-zerbitzua, 08:00etatik 15:00etara) eta 944 222 222 (Gurutze Gorria) deitu.

Behar duten pertsonen laguntza ekonomikoa emateko, Zamudioko Udalak 688 847 608 telefono-zenbakia eta laguntza@zamudio.eus helbide elektronikoa ipini ditu abian, elikagaiak eta botikak erosi ahal ditzaten. Bai telefonoak, bai helbide elektronikoa 24 orduan funtzionatuko dute. Udalak gogora ekarri duenez, laguntza behar duten lagunak edo boluntario ibili nahi dutenak Gurutze Gorriarekin ipini daitezke harremanetan bide hauen bidez: 944 222 222 telefono-zenbakia eta virusbizkaia@cruzroja.es helbide elektronikoa.

Lezamako Udala ere boluntarioak koordinatzen dabil Gurutze Gorriarekin batera. Laguntzeko prest dauden lezamarrak udalarekin ipini daitezke harremanetan udala@lezama.org helbide elektronikoren bidez edo 944 556 007 telefono-zenbakian bidez. Bestetik, laguntza behar dutenak 944 556 007 telefono-zenbakira ere deitu dezakete gizarte-zerbitzuetara jotzeko (martitzenetan eta eguenetan, 08:00etatik 15:00etara), edo Txorierriko Gurutze Gorriarekin ipini daitezke harremanetan: 944 659 715 telefono-zenbakia. Udalera ere jo dezakete: udala@lezama.org.

Era berean, Larrabetzuko gazteak eta udalak koordinatu dira laguntza-sarea antolatzeko. Laguntza-sareak laguntza eskaintzen die erosketak egitera etxetik atera ezin diren pertsonen zein seme-alabak edota senideak nork zaindu ez duten herritarrei. Bertan parte hartzeko, mezua bidali behar da larrabetzukulaguntzasarea@gmail.com helbide elektronikora. Izen-abizenak jakinarazi behar dira, telefono-zenbakia, laguntza noiz eman dezakegun eta autorik dugun. Bestetik, zinegotziak telefonoz deitzen dabilzkie herriko adinekoei nola dauden jakiteko.



## Oinarrizko zerbitzuak, telematikoki

Udal-azpiegitura guztiak itxi egin dira eta udalak telematikoki eskaintzen dabilta oinarrizko zerbitzua, hau da, emailaz, telefonoz eta udal-aplikazioen bidez. Datozen egunetarako antolatutako ekintzak ere bertan behera gelditu dira, esaterako, Larrondoko Martxa eta Larrabetzuko Txakolinaren Eguna. Era berean, kultura- eta kirol-elkarteek euren jarduerak gelditu egin dituzte.

Mankomunitateak bere egoitza eta bere menpe dauden azpiegitura guztiak itxi egin ditu publikoarentzat eta zerbitzua telefonoz, emailaz eta telematikoki eskaintzen dabil. Gizarte Ekintza Sailari dagokionez, bisita guztiak bertan behera gelditu dira eta zerbitzu hau ere telematikoki ematen dabilta: Loiu, gsarria@txorierri.eu eta 944 712 485; Sondika, gsarria@txorierri.eu eta 944533 889; Derio, mlarrea@txorierri.eu eta 944 542 243; Lezama, mlarrea@txorierri.eu eta 944 556

|  |                                                                                                                     |                                                                                          |
|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | <p><b>Sendatu</b><br/><i>Fisioterapia</i><br/><i>Liliana Diaz Charry</i><br/><small>elkargokide-zk. 992</small></p> | <p>Aretxalde, 68 behea<br/>48196 LEZAMA<br/>vidicha@yahoo.com<br/><b>688 763 457</b></p> |
|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|



007; Zamudio, rfernandezleceta@txorierri.eu eta 944 060 999; eta Larrabetzu, rfernandezleceta@txorierri.eu eta 944 557 027. Aurrez aurre bakarrik larrialdiei emango zaie erantzuna: balizko hornidura-mozketak, egoera ekonomiko estuan dauden eta adingabeak dituzten familiak, familia-indarkeria eta bakarrik bizi diren eta familia-laguntzarik ez duten mendeko nagusiak.

Etkez etxeko laguntza-zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ezarritakoaren arabera eskaintzen ari da, eta eguneko zentroak eta zerbitzuak itxita daudenez, etkez etxeko laguntza-zerbitzuaren langilearekin harremanetan dabilta, boluntarioen laguntza beharrezkoa balitz ere. Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko taldea eta SIP zerbitzua telefonoz, whatsapppe eta emailaz dabilta lanean. Bestetik, zaharren egoitzetako egoiliarrek bakarrik bisita bat izango dute egunean.

#### Ekimenak

Berrogeialdia Aste Santua pasatu arte luzatu du Espainiako gobernuak, eta gizarte-sareetan hainbat ekimen ipini dira martxan hura eramangarriagoa egiteko. Berbalagunek, esate baterako, bi-deodeien bidez jarraitzen dute euskaraz egiten eta Derioko Udalak #DerioEtxean ekimena sustatu du. Facebooken azaldu dutenez, helburua da egunero, 13:00etatik 17:00etara, gizarte-sareetara edozein ekimen edo aholku, hala nola errezeta bat eta liburuen eta filmen gaineko aholkuak.

Derioko liburutegiak "Gereziak aurtan doan jango ditut" ekimena ipini du abian. Hori pintura lehiaketa da eta derioztarrek aitite-amamak margotu beharko dituzte nahiago duten teknika erabilita: margoak, arkatzak, boligrafoa, akuarelak, olioak... Lehiaketan nahi duten guztiek har dezake parte, adina edozein dela ere, parte eta autorretratuak ere onartuko dira. Sari bakarra emango da: kutxa bi gerezi.

Lanak liburutegia ireki eta handik 10 egunera aurkeztu beharko dira; atzeko aldean, izen-abizenak, telefono-zenbakia eta adina adierazi behar dira. Lanak Kultur Birikan ipiniko dira erakusgai.

Sondikako Udalak #Sondikagara marrazki lehiaketa antolatu du. Adin guztientzako lehiaketa da eta edozein teknika erabili ahalko da: akuarelak, tenperak, koloreetako arkatzak... Marrazkiak paper zurian egin beharko dira, DIN A 4 formatuan eta parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du. Lanak sondikagara@sondika.eus helbide elektronikora bidali ahalko dira martxoaren 28ra arte, izen-abizenak adierazita. Lanekin mural handi bat egingo da. Azkenik, loiuztarrek bideo bat egin dute herritarrei etxean gelditzeko esateko. Bideoa udalaren Facebooken dago ikusgai.

#### Koronabirusa prebenitzeko neurriak

Azalak garbitzea, eskuak xaboiz sarritan garbitzea, pertsonen artean metro biko tartea uztea, eztula egitean ahoa besurreaz edo erabili eta botatzeko zapiz estaltzea. Sintomak dituzten pertsonak ezin dira egon nagusiekin edo gaixotasun kronikoa dutenekin, edo leku publikoetan eta jendetsuetan. Etxean gelditu behar dute, eta telefono-zenbaki honetara deitu: 900 203 050.

Beste aldetik, osasun-langileek ezin besteko dute babes-ekipoa, eta, besteak beste, maskara-falta dago. European maskarak ekoizten dituzten sei enpresa dauka eta horietako bat Zamudion dugu, Nueva Sibol. Estatuko bakarra da. Azken 35 urteotan, norbera babesteko ekipamenduak diseinatu, ekoiztu eta banatu dituzte. Guztira, 40 lagunek egiten dute lan bertan, baina azken asteotan ez dira nahikoak izan eskaerari erantzuteko. Egunero, 16.000 maskara ekoizten dituzte, normalean baino hiru aldiz gehiago. "Lau hilabeterako eskariak jaso ditugu", esan du Iñaki Muñoyerro kudeatzaileak.

**TABERNA GAZTEI**  
Eguneko menuak  
Ospakizunak  
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**auzoKide**  
Finken administratzailea  
LORENA GAMBOA AGUIRRE  
Txorisolo 4, behea B  
48150 SONDICA  
634 410 470  
auzokidefincas@gmail.com

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala  
Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31



# “Baristak badaki prestatuko duen kafearen onena ateratzen”

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

## Zer da barista bat?

Ardoarekin alderatuz gero, kafearen sommelieria izango litzateke. Baristak badaki, esaterako, kafeari zein txigorketa-puntu eman behar zaion, edo erabiliko duen makina zein den, zein motatako ehoketa egin behar den. Kafearen ezaugarri guztiak kontuan hartuta –non hazi den eta garbiketa-prozesua zein izan den, kasu– baristak badaki prestatuko duen kafearen onena ateratzen.

## Nola bihurtu zara barista?

Kasualitatez, 17 urte nituela. Egia esan, niri ez zitzaidan kafea batere gustatzen, baina barista-ikastaroa egiteko aukera eman zidaten eta mundu honetara Enric Garcíaren eskutik –inoiz izan dudana irakaslerik onena– sartu nintzen pixkanaka-pixkanaka. Kafe kizarakada baten atzean zenbat pertsonaren lana dagoen ezagutu nuen, eta horrek atentzioa eman zidan.

## Zenbat lagunen lana da beharrezkoa, guk kizkara bat kafe hartu ahal izateko?

Ehun lagun ingururen lana. Kafe-landarea hazi egin behar da, uzta eskuz bildu, fruituari mamia kendu, garbitu, kafe-bihirik onenak aukeratu, sikatu, zakuetan sartu, txigortu...

## Aitortu duzunez, lehen ez zenuen kafea gustuko; orain?

Bai. Orain nire pasioa da.

## Nola trebatu zara?

Amateurren mailako hainbat ikastaro egin ditut, baina iaz serioago hartu nuen eta Specialty Coffee Association-eko sei titulu atera nituen, txapelketetan parte hartzen hasi ahal izateko.

## Baristen Iparraldeko Txapelketan hartu zenuen parte lehenengo aldiz, zelan irten zen?

*“Kafe kizarakada baten atzean 100 bat pertsonaren lana dago”*

MIKEL URIARTE GONZALEZ | barista

Adarve Derioko kafetegian ohikoa bihurtu da kafe berezia eskatzea, izan ere, hango Mikel Uriarte kafearen munduan aditua da eta badaki errezetarik onenak sortzen. Aitortu duenez, gaztetan ez zitzaion ezta kafearen usaina ere gustatzen, baina gaur egun kafe-landareko haziarekiko grina handia du.



*“Zaporea erabakigarria da bezeroa gure kafe-tegira zaletzeko edo ez itzultzeko; hala ere, begietatik edaten dugu”*

Proba hauek egin behar izan genituen: lau kafe espres (arau jakin batzuei jarraituta), kafe *latte* marrazkidun bi eta koktel bi. Ez nintzen finalera sailkatu, baina oso esperientzia polita eta atsegina izan zen: jende asko ezagutu nuen eta asko ikasi nuen... Aho-zapore onarekin itzuli nintzen etxera.

**Zertan oinarritzen zara kafe on bat sortzeko?**

Lehenengo eta behin, kafearen ezau-garriak izan behar dira kontuan. Txapelketan, adibidez, Etiopiako kafea aukeratu nuen kafe *latte*-a prestatzeko. Laborantza ekologikoko kafea zen eta lima-, txokolate- eta mertxika-ukituak zituen. Errezeta egiteko, ezaugarri horiei ondoen zetorkie-

*“Txapelketa nazionaleko finalera ailegatzea gustatuko litzaidake; lortu dezakedala uste dut”*

na aztertuz joan nintzen: zitrikoen krema, beharbada, jasmin-lore bat, zein motatako esnea... Probak egin behar dira, harik eta, norberaren ikuspuntutik, errezeta irabazlea topatzen den arte. Esajeratu gabe, igual 1.000 kafe prestatuko nituen erreze-ta perfektua lortu baino lehen.

**Eta zein da zuri gehien gustatzen zaizun kafea?**

Etiopiakoa. Oso garraztasun ona duen kafea da, laborantza ekologikoa, eta asko zaintzen dute hura ekoizteko modua.

**Kafeontzia ere inportantea izango da kafea egiteko orduan.**

Jakina! Horregatik, txapelketetan kafeontzi eta ehogailu estandarrek erabiltzen dira, guztiok baldintza berberetan

lehiatzeko. Ura ere oso inportantea da. Hemen oso kalitate oneko ura dugu, baina Burgosetik behera kalitate txarrekoa da. Ura txarra denean, kafeontziek araztai-le bat izan beharko lukete.

**Kafea baino, artelan ederrak egiten dituzue batzuek.**

*Latte art*-a kafean marrazteko artea da. Baristok esaten dugu kafea mihisea dela, eta mihise bakoitzean marrazki bat egiten dugu. Zaporea erabakigarria da bezeroa gure kafetegira zaletzeko edo ez itzultzeko; hala ere, egia da begietatik jaten eta edaten dugula. Bestalde, kafean marrazki bat egiten badidate, nik ondorio hau ateratzen dut: pertsona horrek ondo ezagutzen du kafeontzia eta badaki esnea kozinatzen eta prestatzen.

**Zein helburu duzu 2020rako?**

Falta dudana titulua atera nahi dut eta txapelketa nazionaleko finalera ailegatzea gustatuko litzaidake; lortu dezakedala uste dut, gainera. Trebakuntza-saioak ere ematen ditut eta horretan jarraitu nahiko nuke. Izugarri gustatzen zait jendearekin egotea eta beraiekin dakidana partekatzeari.



# GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

## ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDI AK EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**





# Feminismoaren oihua zabaltzen dabilz Sondikan

t: Itxaso Marina Ondarroa

## GARRASIA ALKARTEA

Garrasia alkartea 23 urtetik 27 urtera bitarteko zortzi emakumezko gaztek osatzen dabe gaur egun, eta Amaia Urrutikoetxea Lekanda eta Maialen Cristobal Royo horreetako bi dira. Azaldu deuskuenez, Garrasia oso talde plurala da eta eretxi-aniztasunak aberastu egiten dauz taldekideen eztabaidak eta gogoetak. Holan, alkartearen norabidea zehaztea izan eben lehen eginbehar. "Feminismoa ez da bat eta bakarra: ildo asko dagoz eta garrantzitsutzat jo genduan bakotzak feminismoa nondik jorratu gura genduan zehaztea". Hausnarketa-prozesu horretatik feminismoa mahai ganean ipini behar ebela atera eben ondorio, feminismoaren inguruan dagozan kontzeptu eta eretxi okerrak argitu eta euren lana sondikoztar guztiei hurbildu. "Askotan kontzeptuak nahastu egiten dira: «Ez dogu gura ez matxismorik, ez feminismorik; bardintasuna gura dogu», dinoe batzuk. Baina ez dakie feminismoak be bardintasuna gura dauela". Era berean, gogoeta-prozesu horretan ohartu dira feminismoa, gura barik, bakarrik emakumezko zurien ikuspuntutik jorratzen hasiak zirala. "Ez gara konturatu emakume arrazializatuak matxismo bikoitza jasotzen dabela: alde batetik emaku-

Garrasia Sondikako talde feministea orain dala urte bi sortu zan, herrian feminismoaren inguruan egozan hutsuneak beteteko. Ordutik hona eten bako ikaste-prozesu baten murgilduta dagoz, eta feminismoaren mezua herritarrei modu egokian eta txarto-ulertu barik hurbiltzea ezarri dabe euren helburuen artean.

mezkoak izateagaitik; eta bestetik, euren arrazeagaitik. Herriko hainbat emakumezko hutsune hori ohartarazoteko ipini dira gugaz harremanetan, eta asko eskertu deutsegu. Gu barriak gara feminismoan, ez gara adituak, eta egunero gabilz ikasten. Horregaitik benetan eskertzen doguz laguntzea eta iradokizunak".

Feminismoa herritarrei hurbiltzeko asmoz, zenbait ekintza antolatu dabez urte bi honeetan, hala nola maitasun erromantikoa desmitifikatzeko tailerra gaztelekuko erabiltzaileentzat eta Martxoaren 8ari lotutako ekitaldiak: zineforuma, emakume pentsionisten ganeko berbaldia, bertso-bazkaria, batukadea, auto-karabana... Poteo feministea be egin dabe. "Sondikan ez da ezer egiten feminismoaren haritik. Itxurea danez, Martxoaren 8a

ailegatzen da eta zerbait antolatu behar da bai ala bai; eta oso ondo dago, baina urteko ganerako egunetan, zer? Martxoaren 8a ez da egun bakarreko gauzea, urte osoko borroka baino".

Alkartearen kide ez izan arren, emakumezko askok hartu dabe, ahal daben neurrian, Garrasiari laguntzeko konpromisoa. Herriko ganerako taldeakaz be badabilz



*"Martxoaren 8a  
ez da egun  
bakarreko gauzea,  
urte osoko  
borroka baino"*

*"Puntu baltzena oso  
gai garrantzitsua da  
guretzat; ondo iruditu  
jaku Udalagaz batera  
bideratu ahal izatea"*

lankidetzan. "Berbarako, eraso sexisten aurreko protokoloa idatzi genduan inauterietarako eta Sondikako Inauterien Elkarrekin txosnan ipini eban. Bestalde, Altzora euskera alkarekoek deitu euskuen Gau Beltzean parte hartzeko, eta hareekaz batera be antolatu dogu bertso-bazkaria". Hala-ber, harremana dabe Txorierriko ganerako talde feministakaz. "Gure taldea sortu eta handik oso gitxira antolatu ziran Txorierriko lehenengo topaketa feministak. Alkarlanean ibili ginan orduan eta harremanetan jarraitzen dogu. Iretargi Betea Loiuko talde feministeagaz, adibidez, bideo bat egin genduan Azaroaren 25aren harira. Gu beti gagoz alkarlanean aritzeko prest. Ganera, alkarlana oso aberasgarria da ikuspuntu ez-bardinak ezagutzen diralako eta eskarmen-tua eta informazioa partekatzen diralako. Horri jagokonez, Txorierriko talde feminista gehienak gu baino lehenago osatu ziran eta beti azaldu dira guri laguntzeko prest".

#### Kontzientzia

Puntu baltzak arazo kezagarria dira edozein herritan, eta hareek identifikatu eta konpondu behar dira. "Guk ez dogu hori ondo jorratzeko baliabiderik, baina



Udalak deitu egin euskun gai hori aztertzeko asmoa ebala jakinarazoteko. Ondo iruditu jakun eta eurekaz batzartu ginan; Hata guzti be, momentuz geldirik dago: azaldu euskuenez, legegintzaldi honetan jarraituko dabe gaia lantzen. Guretzat oso gai garrantzitsua da, eta ondo iruditu jaku hareekaz bideratu ahal izatea".

Aitatu dabenaren arabera, herrian ipinitako kartel batzuk apurtuta agertu dira, edo pegatinak ganean jarrita. "Guk ez dogu gizonezkoen ganetik egon gura; guk gura dogu emakumezkoek eta gizonezkoek baldintza eta eskubide berberak izatea. Eta mezu hori hain zuzen be ahalik eta pertsona gehieni helduerazotea gus-tatuko litxakigu, izan be, ja eskubide berberak doguzala inork pentsatzen badau, oker dabil: soldata-arrakalea, kristalezko sabaia... Oraindino gauza asko doguz aldarrikatzeko eta sikeran kontzientzia apur bat sortzea gustauko litxakigu". Sondikoz-tarregana ailegatzea eta hareek alkartea-ren mezua eta eginbeharra ondo ulertzea be bada datozen hilabeteetarako ezarri daben helburua. Horretarako, zenbait ekintza egiteko asmoa dabe; berbaldiak, esate baterako.

## Sugarra

Feminismoa berbiztu egin da azken urteotan eta horren adierazgarrietako bat orain dala urte biko lehen greba feministea dogu. "Itzela izan zan, uleak zutuntzeko modukoa, eta Garrasia sortzeko akuilua be izan zan. Salda Badago topaketak be oso lagungarriak izan dira modu pertsonalean hazteko". Sondikako alkar-te feministearen kideen aburuz, besteak beste, sanferminetako talde-bortxaketak eta hilketak matxistek ekarri dabe adin guztietako emakumeak feminismoaren inguruan antolatzea. "Lehen baino gehiago berba egiten da gai horreen eta beste gai batzuen gainean eta horrek haserre-a biztu dau: zerbait aldatu behar dogu, egoera onartezina da eta. Gainera, uste dogu ez daukala iraungitze-datarik izango: batzuo barru-barruan dogu amorrua eta inoz itzaliko ez dan sugarra da".





# Memoria historikoa berreskuratzeko abiapuntua



t/a: Gaizka Eguzkitza

Aretoak L-itxura du, eta guztira 100 metro kuadro. Bisitariek ibilbide antzeko bat egin dezaten, panelak ipini dira eta, besteak beste, gerraren aurreko eta osteko urteak nolakoak izan ziren ezagutu ahal izango da. "Erakusketan ez da gerrarik, armarik edo bonbarik azalduko, sentipenak baizik. Gerra landuko dugu, noski, baina horrezaz aparte jendea gerraren aurretik, bitartean eta ostean zelan bizi zen ere azalduko dugu. Eta hori guztia zentroan jarriko da ikusgai: testigantzak, paperak, azalpenak... Gure gazteei gogorarazi behar diegu, esate baterako, garai batean euskara debekatuta egon zela", adierazi du Gazteluk.

Memoriaren Espazioa Anguleri Jaurerikoko beheko solairuan atondu da. Leku mugatua dago bertan eta, gainera, herriko elkarteek aretoa erabiltzen dute bilerak eta hainbat ekintza egiteko. "Erabilera bieutsi nahi diegu: alde batetik, memoria

Otsailean, Memoriaren Espazioaren atea ireki ziren Larraetzun. Guneak memoria historikoa berreskuratzea du helburu. Ez da gerrako museoa izango, memoria historikoaren erreferentzia baizik, eta haren inguruan hainbat ekitaldi bultzatuko dira. "Ez da bukaera, abiapuntua baizik", esan du Iñigo Gaztelu alkateak.

historikoa berreskuratzeko topagunea izatea; eta bestetik, elkarreana. Beraz, gaur egun erabilera anitzeko esparrua da eta edozein ekintza antola daiteke bertan: erakusketak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, bilerak... Anguleri leku aproposa iruditu zitzaigun Memoriaren Espazioa jartzeko, herriko erdigunean dagoelako. Bilgunea da".

Alkateak aipatu du herritarrek funtsezkoak direla memoria historikoa lantzeko. "Herriak jakin behar du azken 80 urteotan zer gertatu den. Erakunde publikoak baliabideak jarri ahal ditugu, baina herrian benetan errotzeko, herritarrek eurek bul-

tzatuko ekintza izan behar da. Horregatik, zentroa ez da bukaera, abiapuntua baizik. Herriko talde eragile bat sortzea gustatuko litzaiguke, memoria historikoa berreskuratzea haiek garatzeko eta antolatzeko".

"Prozesua lasaia izan behar da, baina, tamalez, erlojuaren kontra gabiltza, garai hartako lagunak gero eta nagusiagoak direlako eta gero eta gutxiago gelditzen direlako". Ainhoa Larrabe ibili da azken urteotan nagusien testigantzak jasotzen eta hainbat bideo grabatu ditu. 2015ean elkarrizketa egin genion Larraberi eta huxe esan zigun: "Nagusi batzuek ez dute



*"Erakusketan ez da gerrarik, armarik edo bonbarik azalduko, sentipenak baizik", azaldu du Gazteluk*

*"Benetan herrian errotzeko, herritarrek eurek bultzatako ekintza izan behar da"*

memoria historikoa berreskuratu nahi, oso garai gogorra izan zelako eta hura gogora ekartzea oso zaila delako. Batez ere Larrabetzu bezalako herri txiki batean memoria historikoa berreskuratzeak zauri asko ireki ahal ditu. Baina, nire ustez, beharrezkoa da. Gaur egungo belaunaldiok merezi dugu historia ezagutzea".

Testigantzez gainera, udala garai hartako materiala batzen dabil. Batetik, herritarrek emandakoa, eguneroko objektuak, hau da, liburuak, agiriak... Eta bestetik, gehienbat Karraderan elkarteko lagunek inguruko mendietan eta lubakietan topatutako gauzak: balak, txanponak, obus zati batzuk, platerak... Hezurak eta gorpuak ere topatu dituzte mendian eta horiek jasotzen Aranzadi elkarteak lagundu die.

#### **Amaitu barik**

Memoria historikoa berreskuratze-lan handia falta da. Ildo horri jarraituz, udalak ibilbide bi ezarri nahi ditu: bata, uriaren ingurukoa, laburragoa; eta bestea,

mendian zehar, luzeagoa. "Biak zehaztu eta seinalatzatu nahi ditugu, Gogora Institutuarekin batera. Aurten saiaturako gara haietako bat martxan jartzen. Gainera, inguruko udalerrri batzuekin jarri gara harremanetan elkarrekin lan egiteko, agian Galdakaoraino ibilbide bat sortzeko edo. Lezamak eta Zamudiok horrelako zerbait egin dute azken asteotan eta oso polita iruditzen zait", esan du Gazteluk. Lana ez ezik, zentroa bera ere badago bukatzeke. Alkateak aipatu du zentroari xehetasun batzuk falta zaizkiola, baina maiatzean inaugurazio ofiziala izango dela.

Zentroak memoria historikoa lantzen lagunduko die larrabetzuarrei, baina Larrabetzuko historia lau haizeetara ere zabaltzeko nahi du, batez ere urtero herritik pasatzen diren lagunei. "Iaz, 3.500 erro-mesak egin zuten lo Larrabetzun. Laster, esku-orria zabalduko dugu hainbat hizkuntzatan (gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez) eurei gure herria ezagutzera emateko".

## **"Beharrezkoa"**

Memoriaren Espazioa irekitzea ez da ideia berria Larrabetzun, lehendabiziko aldiz 2008an proposatu zelako. Horren haritik, hainbat ekimen egin dira herrian: esate baterako, 2007an, Burdin Hesiko borroken 70. urteurrenean, hainbat ekitaldi antolatu ziren –erakusketak, hitzaldiak, kontzertuak, ibilbideak... –, baita 2017an ere, 80. urteurrenean. Horiei azken urteotan Karraderan elkarteak egindako lanak gaineratu behar zaizkie, udalak 2015ean Aranzadi elkartearekin sinatutako hitzarmena, Gaztelumendi mendiko gurutzea 2017an eraitea, milizianoek egindako omenaldiak, lubakiak induskatzea, herriko plazan dagoen murla... "Herrian hainbat ekimen egin dira memoria historikoa berreskuratzeke. Guztiak izan dira politak, baina gure ustez, indar guztiak batu behar ziren eta horretarako sortu da Memoriaren Espazioa", esan du Iñigo Gazteluk.

Udala harremanetan jarri zen beste herri batzuekin, bakoitzak memoria historikoa berreskuratzeke zer egin duen jakiteko: Otxandio, Berango, Elgeta... "Horiek Larrabetzu bezalakoak dira, gerraren hainbat aztarna dituztelako. Elgetakoek gomendatu gintuzten STOA enpresa kataluniarra, besteak beste, Gernikako Bakearen Museoa haiek egin zutelako. Enpresa-koek diagnosia egin ziguten eta plan estrategikoa garatzen lagundu ziguten: ibilbideak egitea, gerraren garai-ko herritarren testigantzak jasotzea... Eta haiekin adostu genuen tokiren bat behar-beharrezkoa zela".



ESSren eraikina, Lund hirian (Suedia)



# Neutroien mikroskopioa

t: Xabier Díaz / a: europeanspallationsource.se

Jakin-mina da gizakiok mugitzen gaituen motor garrantzitsuenetakoa. Natura ikertzeak betidanik liluratu gaitu: bere funtzionamendua, harremanak, osagaiak... Zorionekoak ume-garaiko zergati horiek euren buruari zein ingurukoei galdetzen jarraitzen dutenak! Edo zorigaitoak? Izan ere, ez dago naturan gertatzen den guztia ulertzerik eta barneratzerik...

Metodo zientifikoaren lehenengo pausua behaketa sistematikoa da. Natura ulertzeko, lehenengo eta behin behatu behar dugu. Zer gertatzen da? Zelan? Beti horrela gertatzen da? Leku eta egoera guztietan? Beste kontu inportante bat da aztertzen gabiltzana ahalik eta gutxien aldatzea; hau da, inurritegi bat aztertzen bagabiltza eta inurriak hortik ateratzen baditugu edo grabatzeko orduan argiak erabiltzen baditugu, lortuko dugun informazioa egite horiek baldintzatuko dute. Are gehiago, informazioa ez da baliagarria izango aldaketa handia eragin den kasuetan.

Neutroia partikula azpiatomikoa da eta protoiekin batera atomoaren nukleoa osatzen du. Partikula hauek ez dute kar-

garik, hortik dator euren izena, eta oso txikiak dira, metro bat baino bilioi bat aldiz txikiagoak. Hori dela eta, oso elkarrekintza txikia dute materiarekin eta horregatik hain zuzen dira hain interesgarriak.

Aukera nagusi bi ditugu izaki edo gauraz baten barrualdea aztertzeke. Batetik, diseinatzeko, baina horrek ondorioak ditu; eta bestetik, zundak erabiltzeke. Mikroskopioa erabiltzen dugunean, gure zunda argia da: argia botatzen dugu eta haren desbideraketak eta kolore-aldaketak ematen digute informazioa. Alabaina, zer gertatzen da lagina zabala edo opakoa bada?

Argi ikusgaia baino energetikoagoak izanik, X izpiak sarkorrak dira eta, uhin-luzeera txikiagoa denez, xehetasun txikiagoak bereizteko gai ere badira. Nolanahi ere, arazoa da energia handi guzti hori: kontuz ez bagabiltza, lagina aldatu edo erre egingo dugu. Ekografietan ultrasoinuak dira zunda, sarkorrak, baina bereizmena ez da oso ona. Mikroskopio elektronikoetan, optikoetan baino bereizmen handiagoa lortzen da elektroiek erabiliz.

Esan moduan, neutroiak txikiak dira eta, beraz, bereizmena handia izango da. Elkarrekintzarik ia ez dagoenez, ez dugu

ez egiturari, ez funtzionamenduari eragingo. Lortzen den informazioa oso esanguratsua izango da. Orduan, zergatik ez dira neutroi "mikroskopiko" hauek hain ezagunak? Azaldu dugunez, neutroiak atomoan "bizi" dira eta oso zaila da handik gure nahiera askatzea. Gainera, kargarik ez dutenez, ez da erraza nahi dugun tokira bideratzea, esaterako, laginera.

Neutroiak zentral zein lehegailu nuklearretan lor daitezke artifiziaiki; halere, noski, hori oso arriskutsua da. Beste modu bat protoi-azelerazio bidezko espalazioa da.

## ESS

Protoiak, karga positibodunak, oso abiadura handian botatzen dira metal astun baten kontra. Neutroiek talkaren ondorioz sortutako energia xurgatzen dute, askatzen dira eta laginaren kontra bideratzen dira. Lundt-en, Suedian, eraikitzen dabiltzan European Spallation Source (ESS) instalazioan hori garatuko dute, eta amaitzen denean, neutroi bidezko ikerketako munduko aurreratuena izango da. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeko ESS Bilbao ikerketa erakunde publikoak Lundt-eko azpiegituraren eraikuntza hartzen du parte. Era berean, parte hartuko du bai espezie-erakarpenetan, bai ikerketan eta garapenean.

Suposatu Foruko erromatar herrixkan ezpata bat topatzen dugula eta bere nondik norakoak ezagutu nahi ditugula. Ezpata egiteko zein forjaketa-prozedura erabili zen jakitea lagungarria da horretarako, eta azterketarako ultrasoinuak erabili daitezkeen arren, onena lagin bat hartzea eta ebakidura bat egitea da, baina pieza kaltetuko da. Haatik, azterketa egiteko neutroiak erabil daitezke ezpata apurtu barik: ezpataren kontra bota daitezke eta zelan desbideratzen diren ikusita, behar dugun informazioa lor dezakegu.

Fisikatik medikuntzara, teknologiatik kimikara, biologiatik arkeologiara... bide berria da zientzian, gure jakin-minean eta naturaren ezagutza aurrera egiteko. Eta irudi batek hainbat hitzek baino gehiago adierazten duenez, loturaren bidea ikus-tea gomendatzen dizuet. Merezi du.

<https://europeanspallationsource.se/>  
<https://www.essbilbao.org/>  
[https://en.wikipedia.org/wiki/European\\_Spallation\\_Source](https://en.wikipedia.org/wiki/European_Spallation_Source)  
<https://www.youtube.com/watch?v=VESMU7JfVHU>

# Piztifaktoria

## Homo sapiensa eta inteligentzia artifizia

t: Juan Luis Goikoetxea / a: cdn.ticbeat.com

Piztifaktoria idatzi dut, hala lehorrekoen nola itsas piztiez berba egiteko. Piztia –lukiak– animalia basatia da, bezatu edo hezi gabea. Aberea, berriz, pizti etxekotua.

Homo sapiensa hasieran –Darwin-ek esana– animalien artean beste espezie bat gehiago zen, baina Yuval Noah-k idatzi duenez, zerebroa zuen, burmuina, pentsatzeko makina.

XXI. mendean, desoreka ekologikoa handiagotuz doan aroan, gizakiak piztia guztiak gura ditu menpeko bihurtu, aberetu. Horretarako arrazoiak piztia hitzen definizioan ematen da: Euskaltzaindiko hiztegiak dio: "Piztia: animalia basatia, aziendentzat eta kaltegarri gertatzen dena". Hala bada –kaltegarria– Homo sapiensak borrokan jarraituko du beraien aurka, piztien faktoria eraiki arte, alegia, piztia izaki produktibo bilaka dadin arte.

Kontua da, postmodernitate honean itxaropena teknologiak dakarkigula, baina, era berean, teknologia berberak


mundua makinizatzea dakarrela. Ondorioz, mundu artifizialak ordezkatu egiten du mundu erreala; teknologiek natura bera ezabatu ere bai, piztia aldrak artalde bihurtuz, eta lukiak txakur.

Jadanik, gizakiaren makinagintzak, auto autonomoak, robotak sortu ditu. Eta piztiak ez eze lantegietako beharginak ere beldurrez dira robotek ordezkatzeko deaketa-lako euren lanbidea. Dena den, gaur ere piztiak –lukiak– argi-argi diotso gizakia-ri: Nora hoa? Planeta berean bizi gaitun! Neurea ere badun euskal lurra.

Orain arte ez bezala, baliteke gazte-riak guri –egunen batean– harako 1968ko maiatz frantsesean esana errepikatzea: "Ez badiguzue uzten amets egiten, ez dizuegu lagako lo egiten".

Piztia izan bedi pizti, pertsona, berriz, bihoztun, etikarik gabeko subjektoren bat tek munstro hiltzaileak sortu ez ditzan.

Izango litzateke kontraesan superitzela Homo sapiens jakitunak bere buruari azkena ematea inteligentzia artifizialaren bitartez.



**Iz**  
Ile-apaindegia  
estetika

Txantxangorri, 2  
ZAMUDIO  
946 036 943

**RUBEN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 14 49

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku

Zaindiz Berrak  
Logopedia  
Podologia  
Kirmasajak

clínica dental  
**ZAINDUZ**  
hortz klinika

Txoriem etorbidea, 9 - Lonja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentizaindiz.com | www.dentizaindiz.com

**tik tak**

EGUNEKO MENUA  
lehenengo platerra  
bigarren platerra  
postrea  
ogia  
edaria **9€**

**T: 94 454 55 55**  
Bestorrene 5, Behea  
48160 DERIO

**Nire Autoocasion NA**

**IMPORTAZIOA ETA  
SALMENTA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

**ZAMUDIO**  
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com



## Txokolatezko eta laranjazko arrautzesneak

a:spetitfitbycris.com

### Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 ml esne-gain
- 400 gramoko esne kondentsatu-lata bat
- 800 gramoko mertxika-lata bat
- 6 arrautza
- Karamelua

### Prestetako area:

Arrautzesneak egiteko, honeek ipiniko doguz ontzi baten su ertainean: 400 ml esne, laranja-azala ets edulkoratzaila. Sutan harik eta irakiten dan arte izango dogu. Ontzia sutatik kendu, eta estaliko dogu. Beste ontzi baten gainerako esnea eta maicena nahasiko doguz. Ondoren, gorringoak botako doguz eta irabiauiko dogu; eta ondoren, kakao-hautsa, eta irabiauiko dogu. Lehenengo ontzian egindako nahasia gehituko dogu eta, eragiteari utzi barik, sutan izango dogu loditzen dan arte. Sutik kenduko dogu eta ontzi berri batera botako dogu. Film-paperaz estaliko dogu. Epeltzen danean, ontzi txikietan banatuko dogu eta hozkailuan sartuko doguz.

Marmelada egiteko, laranjak zurituko eta ebagiko doguz. Kazola baten ipiniko doguz limoi-uragaz eta kane-



la-zotzagaz eta 15 minutuan izango dogu su ertain-handian. Marmelada sutik kenduko dogu eta pikorrak desagertu arte irabiauiko dogu. Arrautzesneen gainera botako dogu eta gitxienez hiru orduan izango doguz hozkailuan.

## Ettxeko sukaldaritza



### Indaba zuriak itsas zapoagaz

t: M. Lekerika / a: gastronomiavasca.net

### Osagaiak:

- 300 g indaba zuri
- 400 g itsas zapo
- Kipula bat
- Porru bat (zuria)
- Azenario bat
- 4 berakatz-atal
- Oliba orioa eta gatza
- Pipergorri apur bat

### Prestetako area:

Indabak zortzi edo hamar orduan izango doguz beratzen. Azenarioa, porrua eta kipulea txikituko doguz eta su ezitan erregosiko doguz. Indabei botako deutseguz eta egosiko doguz (beratzeko erabili dogun uretan; beharrezkoa bada, ur hotza gehituko dogu). Berakatzak birrinduko doguz eta prijiduko doguz. Itsas zapoa dadotan ebagiko dogu eta arin erregosiko dogu. Gatza botako deutsogu eta indaben ganean ipiniko doguz zapoa eta berakatzak. Irakiten bost minutu inguru izango dogu saborea hartu dagian.

**GAMINIZ**  
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

hotela  
jattetxea  
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefona: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

### ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA


Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 08  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**  
ALBARTARITZA  
Nerea Padrosa Cals. 517  
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

## Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margo-tu eta moztu ahal dituzu.  
a: [www.recrekids.com](http://www.recrekids.com)



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

- Moskito (Susa), Igor Estankona.
- Kcappo, *Tempo di tremolo* (Erein), Pako Aristi Urtuzaga.
- Zendabalitz (Elkar), Erika Elizari Salvador. XXI Igartza Saria.
- Aralar: *Mundua leku den lurra* (Erein), Lorea Agirre, Idurre Eskisabel, eta Iban Toledo.
- Estatua eta iraultza (Txalaparta), Lenin - Vladimir Ilich Ulianov. Aroa Uharte (it.)

### LITERATURA: GAZTEAK

- Ametz Gaizto nire armairuan (Pamiela), Mercer Mayer.
- Abere ba: *Palindromo Ilustratuen Piztegia* (Pamiela), Itziar Aranburu Garcia, Jon Ander Garcia Alberro (il.).
- Zergatik egiten du distira Eguzkiak? (Tarttalo), Katie Daynes, Christine Pym (il.).
- Basoan eta bakarrik (Edicions Bellaterra), Caru Grossi, Magela Demarco (il.).

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   |   |   |   | 1 |   |   |
|   |   |   | 3 |   |   |   |   | 7 |
|   |   |   |   | 1 |   | 8 |   | 2 |
| 2 | 7 |   |   |   |   |   | 5 |   |
| 6 |   |   | 2 | 7 | 1 |   |   |   |
|   | 9 |   |   | 5 | 6 |   |   | 8 |
|   |   |   |   | 6 |   | 5 | 8 | 3 |
|   |   | 2 |   | 8 |   |   | 7 |   |
|   |   | 5 |   | 9 |   |   |   |   |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 1 | 2 | 3 | 6 | 7 | 5 | 9 | 8 |
| 9 | 7 | 6 | 4 | 8 | 5 | 2 | 1 | 3 |
| 3 | 8 | 5 | 2 | 9 | 1 | 6 | 4 | 7 |
| 8 | 2 | 7 | 9 | 5 | 4 | 3 | 6 | 1 |
| 6 | 4 | 3 | 1 | 7 | 2 | 8 | 5 | 9 |
| 1 | 5 | 9 | 8 | 3 | 6 | 4 | 7 | 2 |
| 2 | 6 | 8 | 5 | 1 | 9 | 7 | 3 | 4 |
| 7 | 9 | 4 | 6 | 2 | 3 | 1 | 8 | 5 |
| 5 | 3 | 1 | 7 | 4 | 8 | 9 | 2 | 6 |

**OAKLAND ENGLISH**  
LEHENDAKARI LEIZADIA PLAZA, 2  
ZAMUDIO  
946522857

**Peñasko**  
arraindegia  
Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808

**RPA**  
MAYORISTAS INFORMATICOS  
ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>



## ZELAN?

### POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(\*) bete eta bidali:  
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

### E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

### TELEFONOZ:

94 452 34 47  
688 86 41 35

### AHOZ:

Zure herriko euskara  
elkarteko kideren bati esan

(\*) Fitxa aldizkarian bertan eta  
erakundeetan, liburutegietan,  
komertzioetan... utziko ditugun  
diptikoetan topatuko duzue.



## Egin zaitez Aikor!lagun

**Etxe bat, lagun bat**



## Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefona: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**Aikor! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio**



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERREKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

# Gora beherak



## Zertan ari da Marilyn Monroe igogailu batean?

Martxoaren 20tik aurrera **'Gorabeherak'** websaila **'Ttap'** aldizkari berrituan ikusgai!

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

**DOAN**

Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero  
zure mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

 **DESKARGATU**  
Play Store-n

 **DESKARGATU**  
APP Store-n



Instalatu orain!





**STIHL**

2020KO UDABERRIAREN ESKAINTZAK

# NATURAREKIN MATEMINDUTA DAUDENENTZAT

\* Eskaintzak, 2020ko ekainaren 30era arte



BANATZAILE PREMIUM  
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín  
*Astikene*

Astikene industrialdea, Berezi 23C  
48160-Derio BIZKAIA  
Tel.: 944 540 652 📞 688 633 197  
[astikene@agrojardinastikene.com](mailto:astikene@agrojardinastikene.com)  
[www.agrojardinastikene.com](http://www.agrojardinastikene.com)